



MONDRAGON

GIZATASUNA
LANEAN

Finantzak
Industria
Banaketa
Ezagutza

2010. urteko txostena



“Kolektibotasun batean itxaropenerako zantzurik garbiena elkartzan jakitea da eraikitzeke, lortu nahi dena erdiesteko eta etorkizunari begiratzeko”.

José María Arizmendiarieta (1915-1976)

Zer da MONDRAGON?

MONDRAGON Korporazioa 1956. urtean hasitako kooperatiba-mugimenduaren emaitza da; urte horretan sortu zen, hain zuzen ere, Gipuzkoako Arrasateko hirian lehen industria-kooperatiba. Enpresa gisa duen filosofia bere Korporazio Balioetan jasoa dago.

- Lankidetzeta.
- Parte-hartzea.
- Gizarte Erantzukizuna.
- Berrikuntza.

MONDRAGON gure langile guztien ahalegin solidarioaren bidez sortutako errealitate sozio-ekonomikoa da. Laneko partaidetza-sistema solidario eta arrakastatsu batek bermatutako alternatiba erakargarria da. Atxikimendu librea, antolamendu demokratikoa, lan-subiranotasuna, elkarren arteko lankidetzeta, gizarteraldaketa edo hezkuntza bezalako printzipioetan oinarritzen da MONDRAGONen eguneroko lana.

Antolamenduari dagokionez, lau arlotan egituratua dago: Finantzak, Industria, Banaketa eta Ezagutza, eta gaur egun, Euskadiko lehen enpresa-taldea eta Espainiako hamargarrena da, enpresa-ideia bera partekatzen duten 84.000 pertsona inguruk osatua.



Presidentearen mezua

2010eko ekitaldia, MONDRAGONerako, ona izan dela esan dezakegu. Korporazioan sartuta dauden enpresek ahalegin handiak egin dituzte, eta ahalegin horiei esker iazkoak baino emaitza global hobekak lortu dira.

Dudarik gabe, bilakaera positibo hori, neurri handi batean, 2009an abian jarritako jarraibide eta jarduketa ildoei esker izan da posible, hain zuzen ere finantza, ekonomi eta enpresa alorrean kooperatibetan hedatu eta 2010ean fruitua eman duten hainbat neurri esker. Neurri horiekin asmatu izanak eta kooperatibek nazioarteko merkatuetan izan duten presentzia handiagoak eta berrikuntzaren alde egindako apustu sendoak gure negozioen lehiarako gaitasuna hobetzea ekarri dute, bai eta 2010aren bukaeran guztirako salmentak hobekitzea eta MONDRAGONeko emaitzak nabarmen handitzea ere.

Korporazioa osatzen duten arloen bilakaerari dagokionez, esan behar da Finantzetan, sektorerako eszenatokia zaila izanda ere, MONDRAGONeko erakundeek ondo gaingitu dutela ekitaldia beraien negozioen efizientzia hobetzeko neurriak hartuta; Banaketa arloan, ekitaldian kontsumoa apala izan bada ere, urrats esanguratsuak egin dira bankuekiko zorra murrizteko bidean, barne efizientzia hobetzeaz aparte, eta bezeroentzako "prezio lehiakorrenean" oinarritutako estrategia baten alde egin da; Ezagutzaren alorrean, aurrera egin da MONDRAGON Health proiektua sendotze lanetan eta enpresa proiektu berriak bultzatzeko lankidetzako plataformak eratzeko lanetan, eta, bukatzeko, industria alorrean, nazioarteko merkatuetan presentzia handiagoa izan dugu eta horri esker jarduera hobetu eta industriako enplegua sortu ahal izan da. Ildo horretan, azpimarratzekoa da nazioarteko salmentek % 13,3 gora egin dutela iazko ekitaldiarekin alderatuta, guztiarekiko % 63 izatera helduta eta gure presentzia komertziala sendotuta Europako merkatuetan

eta azaleratzen hasi diren Brasil, Txina, Errusia eta India moduko herrialdeetan.

Eta joera horrekin jarraituko da datozen urteetan: MONDRAGONen nazioarteko osagaia sendotzeko apustu sendoa egiten jarraituko da, epe luzera iraunkorrak diren enpresa proiektuak garatzeko ezinbesteko baldintza gisa.

Bai eta berrikuntzaren aldeko apustuarekin ere, zeina korporazioaren identitate ezaugarria eta korporazioaren garapenaren ardatza baita. 2010ean apustu hori sendotu egin da bitarteko garrantzitsuak eta pertsona asko horretara bideratuta. Informazioaren eta ezagutzaren gizartean eta abiada bizian eraldatzen ari den mundu global batean bete-betean sartuta gaudela, berrikuntzarekin eta ezagutzarekin lotutako agenteek protagonista izaten jarraitzen dute enpresa proiektuen bilakaeran. Mondragon Unibertsitatea, zentro teknologikoen sarea eta kooperatiben I+G unitateek aparteko esfortzua egingo dute MONDRAGONen jarrera berritzailea egiaztatze-ko etorkizunerako bermerik hoberena delakoan.

Eta hori guztia eredu kooperatiboaren baitan, Printzipioak, Balioak eta Gestio Eredua partekatuta, eta taldearen indarrean uste sendoa izanda, hazten jarraitzeko eta korporazioak aberastasunaren eta enplegua sortzearekin duen konpromisoa egia bihurtzeko.

José M^a Aldecoa

Kudeaketaren Bikaintasunari emandako aitortpenak

2010eko abenduaren 31ko datuak

1 EFQM Europako Sariaren Finalista Fagor Electrodomésticosek lortua (Egosceta).

1 Ingurumenaren Europako Sarria Orklik lortua.

8 Urrezko Q: Euskadiko Kutxa, Copreci, Fagor Industrial, Fagor Minidomésticos, Eroskiren Produktu Freskoen Zornotzako Plataforma, MONDRAGON Lingua, Txorierrri Politeknika Ikastetxea eta Lagun Aro Aseguruak.

19 Zilarrezko Q: Auzo Lagun, Eroskiren Zornotzako, Elorrioko, Aguraingo eta Zorrotzako Plataformak, Enpresagintza, Fagor Electrónica, Fagor Electrodomésticos Confort, Fagor Electrodomésticos LAVADO, Fagor Electrodomésticos Mueble, Geyser Gastech, Lea Artibai Ikastetxea, Mondragon Goi Eskola Politeknikoa, Orkli, Soraluze, Ulma Packaging, Ulma Piping, Ulma Handling, Eroski Bidaiak eta Domusa.

106 ISO 9000 Ziurtagiri.

54 ISO 14001 Ingurumen Ziurtagiri.

24 OHSAS 18000 Ziurtagiri Laneko Arriskuen Prebentziorako Sistemetan.

6 Ekodiseinu Ziurtagiri.

1 Gizarte Erantzukizunari buruzko SA 8000 Ziurtagiria Eroskik lortua.

1 Familiarekiko Arduratsua den Enpresan (FAE) Ziurtagiria, LKSk lortua.



aurkibidea

Oinarrizko datuak

01

Arloak: Finantzak, Industria,
Banaketa eta Ezagutza

01//01 Finantzak Arloa
Euskadiko Kutxa
Lagun-Aro, BGAE
Lagun Aro Aseguruak

01//02 Industria Arloa
Kontsumo Ondasunak
Ekipo Ondasunak
Industria Osagaiak
Eraikuntza
Enpresa Zerbitzuak

01//03 Banaketa Arloa

01//04 Ezagutza Arloa

02

Ekonomia-egoerak eta
ondare-egoerak

03

Antolamendu-egitura.
Sozietate-organoak eta
zuzendaritza-organoak

04

Enpresen zerrenda





Oinarrizko Datuak

Miloi euro.

Enpresa-garapena	2009	2010	Ald.%
AKTIBOA GUZTIRA	33.334	33.099	-0,7
BALIABIDE propioak	4.284	4.287	0,1
EMAITZA bateratuak	61	178	191,8
EUSKADIKO KUTXAREN bezeroen gordailuak	18.614	18.629	0,1
LAGUN-ARO ONDARE-FONDOA	4.210	4.478	6,4
Diru-SARRERAK GUZTIRA	14.780	14.755	-0,2
SALMENTAK GUZTIRA (Industria eta Banaketa)	13.819	13.989	1,2
INBERTSIO garbiak (*)	378	101	-73,3

(*) Inbertsio gordinak 734 M€ izan ziren 2010ean.

Enplegua	2009	2010	Ald.%
LANPOSTUAK batez beste	85.066	83.859	-1,4
BAZKIDEEN % Industria Arloko kooperatiben plantilan	88,1	85,9	-2,4
EMAKUME bazkideen % kooperatiben plantilan	43,7	43,7	--
Industria arloko INTZIDENTZIA edo ezbeharren indizea	38,8	37,9	-2,3

Parte-hartzea	2009	2010	Ald.%
Bazkide langileen KAPITAL SOZIALA	2.161	2.204	2,0
BAZKIDE LANGILEEN kop. gobernu organoetan	904	892	-1,3

Elkartasuna	2009	2010	Ald.%
Jarduera sozialetara xedatutako BALIABIDEAK	22	16,7	-24
Hezkuntza-zentroetan dauden IKASLEEN KOP.	8.567	9.282	8,3

Ingurumenaren kudeaketa	2009	2010	Ald.%
Indarrea dauden ISO 14000 ziurtagiri kop.	54	54	--
EKODISEINU arloko ziurtagiri kop.	4	6	50

Etorkizunerako apustua	2009	2010	% Var.
I+Grako xedatutako balia- bideen % b. erantsiarekiko. industria arloa	8,1	8,1	--
TEKNOLOGIA-ZENTROEN eta I+G unitateen kop.	12	14	16,7







finantza 01//01
industria 01//02
banaketa 01//03
ezagutza 01//04

01

finantza 01//01

01

2010eko ekitaldia zaila izan da finantza-sektorearentzat, aurkako hainbat faktore batera pilatu direlako, hala nola interes-tasak gutxieneko historiko batzuetan luzaroan irautea, berandutza maila handiek bere horretan jarraitzea, horren ondorioz zenbait hornidura egin behar izan direlarik emaitzen kontuak oztopatzen jarraitu dutenak, eta aurrezkiak erdiesteko lehia gogorra, finantza-kostuak eta marjinen gaineko presioa areagotuz.


Hori guztiari beste bi ezaugarri berezi gehitu behar dizkiogu: batetik, berregituratu egin da sektorea, bereziki une hauetan kontzentrazio handia bizi duten aurrezki-kutxen segmentuan, eta bestetik, kapital-eskakizunak areagotu egin dira, finantza-entitateen kaudimena indartzearren.

MONDRAGONen Finantza Arloak nahasmen handiko eszenatoki honetan mugitu behar izan du, eta kontrako faktore horiei aurre egiteko, zenbait kudeaketa-neurri hartu behar izan ditu bera osatzen duten negozioen eraginkortasuna hobetu dadin.

Banku-jardueraren aldagai adierazgarrienek, hala nola kreditu-inbertsioak eta gordailuen kaptazioak, nahiko bilakaera geldoa izan dute, ekonomiak izandako joera motelarekin bat etoriz, eta horren ondorioz, familien eta enpresen errentek behera egin dute, eta horrek ondorio kaltegarria izan du aurrezpenerako gaitasunaren gainean eta, bidenabar, kreditu kaudimenduna eskatzea ekarri du.

Balio-merkatuei dagokienez eta Arlo honetako entitateen **inbertsio-zorroen** gainean horiek duten eraginari dagokionez, joan den urtean horien bilakaera aldakor agertu zen tokiaren arabera, eta hala, AEBetan eta Europa erdialdeko herrialdeetan bai errenta finkoak eta bai aldakorak ere bilakaera ona izan zuten bitartean, Europaren bazterretako herrialdeetan, Espainia ere barne, prezioek beherakadak izan zituzten herrialde horietako herrialde-arriskua areagotu egin zelako.

Testuinguru honetan, lortutako etekin garbiek balio izan dute, batetik, epe luzerako obligazioei erantzutearren





hornidura teknikoak dituen Arlo honetako sozietateetan premia aktuarialei aurre egiteko, baina, baita ere, horien ondareak indartzeko, beren kaudimenak hobetzearekin batera.

Aseguruaren jardueran merkataritza-sareak indartzen jarraitu da, eta halaber, "sare sozialak" izenez ezagutzen den fenomeno berri horretan presentzia areagotzen. Era horretan oinarri berriak ezarri dira modu errentagarri eta iraunkor batez hazten jarraitzeko helburu estrategiko horren garapenean aurrera egin dadin.

Euskadiko Kutxa

2010ekoa bezalako ekitaldi batean, ekonomia eta finantza alorrean krisi nabarmena izan dugularik, Euskadiko Kutxak zorrotasunez ekin die etorri zaizkion erronkei, eta hala, indartuta atera da lehendik ere nahikoa indartsua zuen kaudimen-egoera horri dagokionez, eta bide batez, likidezia maila lasai bati eutsi ahal izan dio.

2010.12.31ko egoera **balantzean**, beraren aktiboak gutxira 20.998 milioi eurotara iristen ziren; hala, 213 milioi

euroko gehikuntza arin bat izan du aurreko ekitaldiko itxierarekin alderatzen badugu, eta % 1ekoa kopuru erlatiboetan.

Bezeroen gordailuak guztira 18.629 milioi eurokoak izan dira urtearen amaieran, kopuru erlatiboetan % 0,1 hazi ondoren. Lorpen hori are merezimendu handiagokoa dela esango genuke kontuan hartzen badugu sektorean pasiboaren inguruan nolako lehia izan den, Euskadiko Kutxak nahikoa ongi gauditua ahal izan duena bere likidezia-egoera lasaiari esker.

Bezeroen gordailuek izan duten hazkundera aurrezki-kontuetan bermatu da, % 3,5 hazi baitira, kontu korronteen kaltetan, baita eperako gordailuetan ere, 55 milioi euro gehiago izan direlako. Halaber, hipoteka-zedulen bitartez erakunde izaerarekin egindako jaulkipenek ere lagundu egin dute hazkunde horretan, 400 milioi euroren bidez.

Beste alde batetik, **kreditu-inbertsioa**, estalduretarako eraturako zenbatekoak nagusiki jasotzen dituzten balorazioagatiko egokitzapenak kanpo utziz, 16.486 milioi eurokoa izango zela jotzen zen urtea amaitzean, 2009. urtearekin alderatuta % 2ko jaitsiera izanik, eta zenbait atzerakada arin izan dira bai enpresen segmentuan eta bai partikularrean ere, azken kasu horretan higiezinaren merkaturatu moteldu izanaren ondorioz eta, horrek bultzatuta, hipotekadun maileguren eskaerak ere murriztu izanaren ondorioz.

Jarduera ekonomikoek eta enpleguek izandako atzerakada horrek eraginda, handitu egin zen berandutza-indizea, eta hain zuzen ere, % 3,17an kokatu zen, maila onargarria edonola ere, eta sektorean izandako batez bestekoarekin alderatuta ontzat jotzen dena.

Fondo propioak, joan den ekitaldiaren itxieran, 1.573 milioi eurotan zenbatu ziren, eta horrenbestez, kaudimenekoefizientea % 12,2an kokatu da, finantza-sektorean ditugunetan altuenen artean izango genukeelarik.

Bilakaera ekonomikoari dagokionez, berriz, joan den ekitaldia guztiz korapilatsua izan da errentagarritan.

Bezeroen gordailuak	Mil. €
2008	17.576
2009	18.614
2010	18.629

Fondo propioak	Mil. €
2008	1.561
2009	1.565
2010	1.573

Kredituak bezeroei	Mil. €
2008	16.576
2009	16.815
2010	16.486

sunaren ikuspegitik, epemugara iristen joan diren prezioak baino prezio txikiagoetan gauzatu direlako inbertsio berriak, eta aldiz, pasiboen kostuen gaineko presioa areagotzen joan da, likidezia txikiko eta aurreztaileen dirua erakartzeko lehiarik gogorreneko testuinguru batean. Horrek guztiak interesen marjinari eragin dio, baina halere, horren eragina gutxitzea lortu da barne-kostuei eutsiz, eta horrek guztiak, zuzkidurak baino lehenagoko emaitzak 188 milioi eurokoak izatea ahalbidetu du.

Edonola ere, horniduretarako zuzkiduretan egindako ahalegin nabarmenak ahalbidetu du amaierako **Emaitza Garbi** hori, eta hain zuzen ere, 51,4 milioi eurotan kokatu da.

Eraginkortasun-ratioak, hots, ustiapen-kostuen eta entitateak erdietsitako diru-sarreraren arteko erlazioak, interes-tasa txikien ondorioak jasan ditu 2010ean, gutxieneko historikotan kokatu baitira horiek, eta horren ondorioz, diru-sarrera errekurrenteak erdiesteia eragotzi dute. Hori hala izanik ere, % 43,9an kokatu da ratioa, eta maila ontzat jo daiteke hori, zeren eta, beste kutxa batzuetakoarekin alderatuta, datu positiboak direla esan baitaiteke.

Nazioarteari dagokionez, Euskadiko Kutzak atzeriarekin loturiko eragiketa batzuk burutzen ditu mundu osoan 1.000 korrespontsal baino gehiago dituen sare batean oinarrituta, eta eragiketa horiek, 2010. urtean, 2.700 milioi eurotik gorako kopuru batean zenbatu ziren nazioarteko transakzioekin loturiko negozioei dagokienez.

Lagun-Aro, BGAE

Lagun-Aroren mutualisten kolektiboa MONDRAGON eratzten duten kooperatibetako bazkideek osatzen dute nagusiki. Lagun-Aroren jardueraren helburua kolektibo honen eta beren senitarteko onuradunen gizarte-babesa da, Sistema Publikoaren antzeko hedadura izanik.

2010eko abenduaren 31n, mutualista aktiboek kolektibo horrek 29.973 pertsona biltzen zituen, 146 kooperatiben barruan bilduak, eta urteko gutxikuntza garbia % 2,5ekoa izan da.

Banaketa-prestazioen zenbatekoa, epe laburrerako prestazioak estaltzen dituztela, 77,1 milioi eurokoa izan da 2010ean, eta nagusiki, xede hauetarako bideratu dira:

- Aldi Baterako Ezintasuna, 37,9 milioi euro (gutzizkotik % 49).
- Enpleguarentzako Laguntza, 18,0 milioi euro (gutzizkotik % 23).
- Osasun Laguntza, 14,3 milioi euro (gutzizkotik % 19).

Aldi Baterako Ezintasun-prestazioaren gastua hazi egin da 2010. urtean, absentismo-tasaren goranzko joeraren ondorioz, 2009an % 5,11 izatetik joan den urtean % 5,76 izatera igaro baita. Horrek eraginda, ekitaldian 6,1 milioi euroko defizita izan dugu, eta hori 2009az geroztik dakargun sobe-rakinari deskontatzen badiogu, prestazio honen saldoa -1,7 milioitan kokatzen da.

Enpleguarentzako Laguntzaren prestazioari dagokionez, gastua gutxitu egin da aurreko urtearen aldean, zenbait kooperatiba berreskuratu eta beren jarduera hobetu izanari esker, enplegua sortu eta birkokapenak egin ahal izan baitira, eta hori dela eta, behin betiko izaera duten beste soluzio batzuekin batera, murriztu egin dira benetako langabeziaren gastua eta egutegi mugikorra. Gastua murriztu den arren, 5,9 milioi euroko defizita erregistratu da ekitaldi berean, nahiz eta prestazio horrek oraindik ere 48,6 milioi euroko saldo positibo metatua duen balantzean.

Ondare fondoa	Mil. €
2008	3.815
2009	4.210
2010	4.478



Erretiro, Alarguntza eta Ezintasun Iraunkorragatiko prestazioak, kontuan badugu horien estaldura denbora-tarte luzeetan eta mutualista kopuru handi batentzat bermatu beharra dagoela, dagozkion pentsioak bermatuko dituzten hornidura egokiak eratuz finantzatu dira. 2010. ekitaldia amaitzean, pentsiodunak guztira 9.874 pertsona ziren, 2009. urtearen amaieran baino 558 gehiago, eta kontzeptu horientatik ordaindu zaien guztizko zenbatekoa 113,8 milioi eurotara iritsi da, aurreko urtean baino % 9,5 gehiago.

Kapitalizazio-prestazio hauek Ondare Fondo baten bitartez bermatzen dira, eta 2010. urtearen amaieran 4.478 milioi euro ziren, ekitaldiaren itxieran izandako errendimenduak eta balio-egokitzapenak aplikatu ondoren. Balio-merkatuen bilakaera onak oso eragin positiboa izan du finantza-inbertsioetan izandako errendimenduan. Aurreko urtearekin erkatuta, Ondare Fondoa 267 milioi euro hazi da, eta horrek esan nahi du % 6,4 izan dela gehikuntza, portzentajetan.

Lagun Aro Aseguruak

2010ean indarrean egon den egoera ekonomikoak ez dio eragotzi Lagun Aro Aseguruaki berrikuntzak egiten jarraitzea, bai bere barne-prozesuetan eta bai bezeroekin dituen harremanetan ere.

Bere bezeroei begira, indartu egin du *on line* sukurtsalaren zerbitzua, sektore honetan aitzindaria, eta areagotu egin du sare sozialetan duen presentzia, bezeroengandik eta bitartekariengandik hurbilago egoteko helburuz. Barne-mailan, eta "MONDRAGON sarean" ekimenaren ildotik, enpresaren baitan 2.0 kultura ezartzeko erronka hori sendotzen ari dira.

Konpainiak 2010ean izan duen garapen komertzialaren xedea 2012. urterako Estatuko lurralde osoan presente egoteko asmo horretan aurrera egitea izan da. Joan den ekitaldian bitartekaritza-kanala indartu da hiru Lurralde Zuzendaritza sortuz: Iparra (Euskadi, Kantabria, Nafarroa eta Errioxa), Mendebaldea (Asturias eta Gaztela-Leon) eta Ekialdea (Bartzelona, Zaragoza eta Valentzia).

2012. urtean beste helburu estrategiko bat, Espainia osora zabaltzeaz gain, konpainia honek Euskadiko Kutzarekin duen balio handiko harremana indartzea izan da. Horregatik, ACB saskibaloiliga Caja Laboral Baskonia eta Lagun Aro GBC taldeei babesa ematen jarraitu dugu, eta horiez gain, 2010. urtean Bizkaia Bilbao Basket taldeari ere bai. Horri esker, bi entitateon marka-irudia indartzea lortu da, entzute handiagoa erdietsi da eta bien negozioa ere bultzatu da.

Egindako ahalegin komertzial horrek bere saria izan du eta halaxe frogatzen du 2010. urtearen amaiera aldera ICEAk egindako azterlanak, izan ere, bitartekariak ongien balioesten dituzten konpainien artean kokatu baitu Lagun Aro Aseguruak, eta lehena izango litzateke bezeroaren arretarako eta harremanetarako pertsonalari dagokionez. Era berean, bikaintasunaren saria jaso zuen bere Contact Center plataformak, eta aztertutako guztien artean plataformarik funtzional eta abegitsuena zela jo zuten.

Azpiraratzekoa da halaber, Lagun Aro-Giza Begirada Fundazioaren bitartez, arreta psikosozialeko zerbitzu bat eskaintzen diela trafikoi-istripuen biktimei eta haien senitartekoei. Zerbitzu aitzindari bat da Euskadin, ezbehar batek eragindako egoera gainditzeko era guztietako laguntzak eskaintzen dituena (medikuntza, legedia eta abar). Urrats berri bat da biktimei eskaintutako arretan eta proiekturik garrantzitsuenetako bat Lagun Aro Aseguruak Fundazioaren gizarte-ekintzaren barruan.

Emaitza ekonomikoak dagokienez, 2010eko zenbakiak aurreko ekitaldikoak baino hobekiak izan dira. Fakturazioa 197 milioi eurotara iritsi da, eta % 5eko gehikuntza izan da Etxean, baina halere, ia berdin mantendu da Autoetan (% +0,1) eta % 4,6ko jaitziera izan da Bizitzan. Mozkinak zergak baino lehen 10,9 milioi eurokoak izan dira, aurreko ekitaldikoak baino % 5,8 handiagoak. Sektorearekin konparatuta, datuak positibotzat jo ditzakegu, Lagun Aro Aseguruak 2010ean batez bestekoaren gainetik hazi delako, eta halaber, Autoen ezbehar-kopuruan ere emaitza hobekak eskaini dituelako.

industria 01//02

02



2010. urtean, atzeraldi horretatik pixkanaka irteten hasi gara, baina esan beharra dago ekitaldia osorik hartuta atzerakada ekonomiko arin bat gertatu dela 2009. urtearekin alderatuta. Barne-eskaera ahul mantendu da urte osoan, inbertsioaren eta enplegu-sorreraren gainean eragin etsigarria izan du horrek, eta hain zuzen ere, kanpo-sektoreak eskaini dio industria-jarduerari nolabaiteko lasaitasuna.


MONDRAGONen Industria Arloak zenbait neurri aplikatzen jarraitu du egoera horretara egokitzeko xedez, eta horrek emaitza onak ekarri ditu. Aldi berean, nazioarteko ekonomia ere pixkanaka berrindartzen joateak eskaera-zorroen pixkanakako hobekuntza ahalbidetu du, nahiz eta erritmo motelean gertatu den. Lurraldean arabera, eta arestian adierazitakoarekin bat etorritik, kanpo-merkatuen jokabidea Estatuko merkatuarena baino hobeia izan da, Estatuan ahulezia izan baita nagusi.

Industria Arloak, osoki hartuta, lortu duen **salmenta** kopurua 5.711 milioi eurokoa izan da guztira, eta horrek esan nahi du % 5,4ko gehikuntza izan duela 2009an erdietsitako fakturazioaren aldean.

Salmenta horietatik, 3.594 milioi euro **nazioarteko salmentei** dagozkie, eta horien hazkundeak (% 13,3 2009arekin alderatuta) nabarmenki kontrastatzen du etxeko salmentek izandako atzerapenarekin (% -5,2). Horren ondorioz, nazioarteko salmentek **salmenta guztien** gainean duten kuota % 62,9raino iritsi da, eta beraz, 3,5 puntu igo da 2009aren aldean.

Kanpo-hedapenari dagokionez, azpimarratu beharra dago jarraipena eman zaiola kanpo-merkatuen ezarpenari, eta hala, ekoizpen-lantegi berri batzuk abian jarri dira Alemanian, Brasilen, AEBetan eta Indian, eta dagoeneko 77 ezarpen egin dira atzerrian. Joan den ekitaldiaren itxieran, MONDRAGONen Industria Arloko 14.674 pertsona beste herrialde batzuetan kokatutako lantegi eta ordezkarietzan ari ziren lanean.

Gauzatutako **inbertsioak** 377 milioi eurokoak izan dira, eta horrek esan nahi du % 16 hazi direla 2009. urtean



egindakoen gaintik, normaltasuna pixkanaka berreskuratu izanak eraginda, nahiz eta instalatutako ekoizpen-gaitasuna oraindik ere bere erabateko erabilpenetik urrun samar aurkitzen den.

Joan den ekitaldiko mugarrietako bat **City Car** auto elektrikoaren aurkezpena izan zen; hain zuzen ere, auto-mozioaren esparruan etorkizuneko negozio-lineatan eta produktu berrietan zehaztuko diren berrikuntza garrantzitsuenetako batzuk biltzen ditu egitasmo horrek.

Era berean, jarraipena eman zaio **negozio berrien sustapenari** eta 2010. urtean bi enpresa berri abiarazi dira: batetik, Batz Lightweight Technologies, osagai aerodinamikoak eta egitura arinak ekoizteko Batz eta FPK etxeen arteko elkarlanetik sortua, eta bestetik, Altsasuko kooperatiba berria, Coprecik sustatua bere osagai-aukera osatzearren. Aldi berean, beste jarduera berri batzuk ere abiarazi dira, hala nola Eika superkondentsagailuena, Maier etxearen aldetik hondakinen kudeaketarena eta Matz-Erreka enpresaren aldetik pertsona ezinduak beren kasa molda daitezela errazteko produktuena.


Enpleguari dagokionez, atzerakada ekonomikoa gainditzen joan garen neurrian eta industria-jarduerak areagotu ahala, Arlo honetako enplegua berrindartzen hasi da, eta horrela, 1.378 lanpostu gehiago erdietsi dira urtean batez besteko pertsonal okupatuari dagokionez aurreko ekitaldiarekin erkatuta, baina ekitaldiaren ha-

siera eta amaiera kalkulu-oinarritzat hartzen badugu, sortutako enplegu kopurua 1.906 lanpostu izan dira.

Ingurunean izandako hobekuntzak kontuan izanik, eta egoerari aurre egiteko hartutako kudeaketa-neurri zorrotzen ondorioz, Industria Arloaren **errentagarritasunak** bilakaera positiboa erakutsi du. Joan den ekitaldiko Emaitzak, Kapital Sozialean ordainketa-interesak deskontatu baino lehen, 170 milioi eurotan kokatu dira, eta horrek esan nahi du bikoiztu egin direla 2009. urtean erregistratutako 71 milioi euro horiek.

Hobekuntza hori ez litzateke posible izango Korporazioak **berrikuntzaren** alde halako apustu sendoa egin ez balu, eta horren erakusgarri gisa aski da adieraztea 1.293 pertsona ari direla ikerketa-lanean askotariko teknologietan espezializatutako hamahiru zentroetan, Mondragon Unibertsitatean eta industria-kooperatibetan, eta halaber, 144 milioi euro xedatu direla I+Gerako 2010. urtean.

Garaia Berrikuntza Guneari dagokionez, berritasunetako bat Saiolan Enpresa eta Berrikuntza Zentroa barneratu izana eta Living Lab bat abiarazi izana dira, Euskadiko Etxetresna Elektrikoen Klusterrak (ACEDE) sustatua, erabiltzailea eta berrikuntza irekia ardatz gisa hartzen duen ikerketa baten kontzeptua duena, diziplina anitzeko taldeek horretan parte hartzen dutela.



Heziketaren atalean, berriz, joan den urtean 6,5 milioi euro xedatu dira izaera teknikoa duten edo sozio-empresariala duten zenbait programetarako. Gai azpimarragarri gisa aipatzekoak dira 1.170 pertsonak jasotako Heziketa Kooperatiboa eta 403 zuzendarik jasotako Lidergoari eta Talde-lanari buruzko Heziketa.

Laneko Segurtasun eta Osasunean, helburu nagusietako bat da oraindik ere ezbehar kopuruaren indizea murriztea; istripu kopuruaren adierazlea 1.000 langiletatik 37,9 izan da 2010. urtean, eta beraz, 0,9 puntu jaitsi da aurreko urtearekin alderatuta. Arlo honetan, nabarmendu beharra dago, halaber, 24 industria-kooperatibak Laneko Arriskuen Prebentziorako Sistemen ziurtagiria dutela OHSAS erreferentearen arabera.

Azkenik, adierazi beharra dago, kooperatiben gizarte-erantzukizunarekin loturik, eta gure ingurunea ego-

ki zaintzearen aldeko kezkaekin loturik, dagoeneko **54 kooperatibek** lortu dutela ingurumen-kalitateari buruzko **ISO-14000 ziurtagiria**.

Kontsumo Ondasunak

MONDRAGONeko Kontsumo Ondasunen sektoreak 1.563 milioi euro fakturatu zituen, eta hala, joan den urtearen aldean % 0,8ko hedapena izan dute; nazioarteko salmentak % 68 izan ziren guztira.

Etzetresna elektrikoak. Presente aurkitzen den merkatu nagusietan bilakaera negatiboarekin jarraitzen dute: Espainiak % 4,3 egin du atzera, eta % 45,5eko erorketa metatu du epealdi osoan; Frantziak % 0,3 egin du gora, baina % 7,9 atzeratu da epealdi horretan; eta Polonia % 0,4 erori da, baina % 29ko hazkundea metatu du data horretatik.

Marken jokabideari dagokionez, berriz, % 18,1eko kuota erdietsi da Espainian (datuak: Anfel), % 14,2 Frantzian (iturria: Gifam) eta % 8,3 Polonian (iturria: Ceded). Fagor dugu sektore honetako Europako bosgarren ekoizlea, eta % 5,1eko partaidetza estimatua du.

Negoio-itxaropenen bilakaerari dagokionez, Fagor etxeak bere jarduerak egokitzen jarraituko du, guztiz beharrezkoa baita egungo testuinguruan, Asian dituen jarduerak bultzatuko ditu inguru horretan salmentak hiru urtetan hirukoizteko (Asia 100 proiektua) eta bere aliantza-politika aktibatuko du eragiketen garapena sendotzeko, eta ez kanpo-merkatuetan bakarrik.

Fagorrek zinez sinesten du berrikuntza dela etorkizuneko edozein garapen bermatzeko giltzarria. Horrela, Fagor Hometek International izeneko Ikerketa Zentroa 2008. urtearen erdialdera funtzionamenduan jarri ondoren, Fagorrek 69 milioi euro baino gehiago inbertitu zituen 2010ean berrikuntza-jardueretan, eta hala, Espainiako enpresen artean zortzigarren tokian kokatzen da berrikuntzan egindako inbertsioari dagokionez, "The 2009 EU Industrial R&D Investment Scoreboard" Europako Batzordearen txostenak dioenari jarraiki.



Fagorren lehentasunezko beste jarduera-ardatz bat da Iraunkortasuna. Horrela, “2010 Iraunkortasun Txostena” argitaratu du, eta bertan, konpromiso iraunkorraren eremuan gurea bezalako Gizarte Ekonomiaren Enpresa Talde batentzat egindako lanak jasotzen dira. Gure ahalgina ardazten duten alderdiak, hain zuzen ere, hauek dira: kudeaketa-ereduarekin loturikoak –gure lehiakideen aldean desberdintzen gaituen ezaugarrietako bat–, berrikuntza iraunkorra, pertsonak eta gizarte-eraldaketa, eta ingurumenaren kudeaketa.

Confort, hau ere aurkako testuinguru batean murgildua dago, bere jarduerak Espainiako merkatura mugatzen direlako batik bat, baina halere, etorkizunari baikortasunez begiratzen dio aliantzen garapenetik abiatuta.

Altzariaren Taldeak (Fagor Mueble, Grumal, Danona, Coinma eta Gerodan) zuzen-zuzenean jasan ditu higiezinaren sektorean izandako motelaldiaren ondorioak, eta hala, hiru urtean metatutako eskaerak % 60tik gorako beherakada izan du.

Altzariaren Taldearen baitan dauden sinergia-proiektuak, hala nola produktua estandarizatzea eta sinplifikatzea, industria-lantegiak espezializatzea, baterako erosketak, sinergia komertzialak eta egituraren murrizketa, adierazitako epeetan gauzatu dira, nahiz eta ez diren nahikoak izan aurreikusitako helburu kuantitatiboak erdiesteko. Epe laburrera, jarduerak arrazionalizatzeko dinamika horrekin jarraitzeko helburua dute bere proiektuek.

Aisialdia-Kirola Taldearentzat ekitaldi ona izan zen oro har, Orbearen nazioarteko proiektuak erakutsitako sendotasunari esker eta Dikar eta Eredu etxeen produktu-garapen berriei esker.

Orbeak merkatuetan eta bere produktu-eskaintzan hedapenaren bidetik jarraitzen du oraindik, eta hazkunde nabarmena izan du diru-sarreratan, nazioarteari dagokiona % 68 izanik. ORBEA markaren pertzepzio eta nabarmentasun handiago batekin batera, errentagarritasun-tasa on bati eutsi zaio.

Dikar enpresak kanoien eta atzerakargaren jarduera Europan posizionatzeko eta garatzeko lan bat burutu du “Bergara” markaren gainean, eta Ameriketako merkatuarekin batera, kirol-armen jardueraren aukerak eta bilakaera areagotzea ahalbidetuko du horrek. Fitnessari dagokionez, jarduera honen etorkizuneko proiektuari bultzada handia eman eta bidea argitu zaio, erostetxe handien eremuan zuen negozioa bertan behera utziz eta “Halley” markaren azpian linearik profesionalena garatuz.

Eredu enpresan diru-sarrera kopuruari eustea lortu dute bai kanpin-gaien eta bai diseinuzko altzarien negozioan ere, esportazioan izandako hazkundean oinarrituta, eta Lièvore, Lluscá eta Teixidó diseinatzaileen garapen berrien bidez osatu da katalogoa. Estrategia, hain zuzen ere, merkatu estrategikoetan duen ezarpena hedatzea eta areagotzea da batetik, eta bestetik, arkitektoen eta marka-irudiaren gaineko ekintza areagotzea, horren bidez eta gastuen eta kostuen optimizazioari esker bere errentagarritasun-mailari eutsi ahal izango baitiote.

Osasunaren alorrean aipatzekoa da nazioartean izandako hedapena eta produktu berrien garapenean egindako ahalegina.

Oiarsok bere ekoizpen-egiturak egokitzeko eta nazioartera zabaltzeko urtea bizi izan du, eta hala, % 19 hazi da, Txinako bere filiala sendotzearekin batera, bazkide berri bat gehitu baita, hots, Cardiva, % 50ean.

Osatu desfibriladoreen gama berriaren eta bere ziuertagiriaren garapena amaitzeko fasean murgilduta ibili da, baina horrekin batera, herrialde estrategikoetan dituen partnerrak egituratu ditu, eta produktuak ere herrialde horietan erregistratu ditu.

Ekipo Ondasunak

Ekipoko Ondasunen sektoreak 935 milioi euro fakturatu zituen, eta beraz, % 4,2ko atzerakada izan du aurreko ekitaldiarekin alderatuta, eta nazioarteko salmenten portzentajea berriz % 70 izan da guztira.

Automatizazioari eta Kontrolari dagokionez, 2010. ekitaldian berrindartu egin da **Fagor Automation**, 2009. urtea Makina Erremintaren sektorean urte zaila izan ondoren. Taiwan eta Brasil bezalako merkatu garrantzitsuetan berrindartze nabarmen bat lortu da. Era berean, Txinako eskaerek sektore honetan duten protagonismo indartsuak bere horretan jarraitu du, hain zuzen ere, bere merkatu nagusia dela egiaztatuta da.

Horrez gain, Fagor Automazionek bere dinamika bertzaileari eutsi dio 2010. urtean; hala, CNC 8065 eta CNC 8055 power bezalako produktuen proposamenak oso harrera ona jasotzen ari dira merkatuan. Era berean, proposatutako *encoder* berriak, hau da, bai linealak eta bai 23 biteko bereizmen handiko birakariak ere, nazioarteko merkatu nagusietan posizionamendu hobea izan dezala ahalbidetzen ari dira. Bide batez, 2010. urtean gogor ahalegindu dira Indiako merkatuan posizionamendu bat erdiesteko.

Mondragon Assembly nazioartera zabaltzeko bere estrategiarekin jarraitu du 2010. urtean, eta hala, *Tabber Lite* berriaren proposamenetan eta zerbitzuan eskaintako malgutasunean eta azkartasunean bermatuta, nazioarteko merkatuetan posizionamendu nabarmen bat erdietsi dute, Txinan gero eta garrantzi handiagoa izanik. Era berean, Osagaien sektorean jarduerak egiten eta Osasunaren sektorean proiektuak garatzen jarraitu du.

Txirbil-harroketa bidezko Makina Erremintaren sektorean krisi larria izan arren, **DANOBATGROUP** etxeak ekitaldi ona burutu eta mozkinekin amaitzea erdietsi zuen.

Taldearen historian lehenengo aldiz, eskaeren rankingean lehen herrialdea Txina izan zen, eta horren atzetik zeuden Alemania, Italia eta India.

2010ean erdietsitako eskaeren artean, azpimarratzekoa da tren-ardatzen ekoizpenerako zelula batena, tren-sektorean lider den Italiako ekoizle batek egina. Azpimarratzekoa da, halaber, 6 metroko platoa duen tornu bertikal baten eskaera, aerosorgailu eolikoaren biderketa-kutzako piezak mekanizatzeke.

Ikuspegi teknologikotik nabarmentzekoa da mikro-mekanizatuko prototipoen garapena: mikro-mekanizatu laserra eta ultra-doitasunezko mikro-fresaketa. Hegazkin-motorren blisk punten akabera-prozesu bat ere garatu da. Era berean, 2010. urtean aurreko ekitaldian abian jarritako inbertsioak gauzatzen jarraitu dute. Hala, ekoizpen-lantegiak hedatzen eta lehendik zeudenak berri-zen jarraitu dute.

Bere filialei dagokienez, azpimarratzekoa da **Bimatec-Soraluce eta Danobat-Overbeck** alemanek eta **Danobat-Newal** ingelesak nolako jokabide ona erakutsi duten. Bide batez, Pune herrian (India) lantegi berri bat eraikitzen hasi ziren, eta obra hori 2011. urtearen amaiera aldera amaitzea espero dute. Bere ekoizpen-funtzioez gain, DANOBATGROUP-Indiak, hots, Taldeak herrialde





horretan duen ordezkaritzak burututako jarduera komertziala babestuko du lantegiak, baita bere agentee-na ere. Txinan bulego berriak ere ireki ziren. DANO-BATGROUP-Txinak 10 urte daramatza herrialde horretan ordezkaritza propioarekin, instalazio moderno batzuk dauzka bertan, eta Taldeak Asiako herrialde horretan dituen hedapen komertzialerako planak gauzatzen lagunduko dute.

Deformazio bidezko Makinerian, Fagor Arrasate enpresak argi eta garbi bereizitako bi garai bizi izan ditu 2010ean. Hasieran eskaera mailak oso urriak izan baziren ere, horren atzetik, bigarren seihilekoan, eskaerak hazkuntza esanguratsua izan zuen, eta ondorioz, eskaera-zorroak ere goraka egin zuen. Txinaren antzera gero eta garrantzi handiagoa duten herrialdeetan duen

posizionamendua nabarmenki hobetu da, eta herrialde horretan ezartzeko proiektua indartzea erdietsi du.

Halaber, automozioaren sektoreko bezero garrantzitsuen artean duen posizionamendua ere hobetzea ahalbidetu du 2010. urteak.

Siderurgiaren sektoreak agente esanguratsuenen artean duen posizionamendua finkatzen jarraitu du, eta jarduera maila garrantzitsuak lortu ditu Asiako eremuan eta Estatu Batuetan.

Horrenbestez, Fagor Arrasateren 2010.eko ekitaldia apala izan zen salmentei dagokienez, baina oso oparoa izan da, aldiz, negozioa eta posizionamendua lortzeko orduan, eta horrek eraginda 2011. ekitaldian jarduera maila garrantzitsuak izango dira.

Onapres enpresak 2010. urtean instalazio garrantzitsu bat eskaini du ontzizintzaren sektorearentzat, eta hori dela eta, indartu egin da zenbait sektorerentzat prentsa hidraulikoen soluzioak proposatzeko Onapresek duen gaitasuna; automozioa, trenbidea, aeronautika, ontzizintza eta abar.

Packagingeko makineriari dagokionez, amaitu dira 2010. urtean aliantzak sendotzeko eta sektoreko zenbait enpresatan gehiengo batek parte hartzeko aurreko urteetan hasitako prozesu batzuk, horien lehia-posizioa indartzearen. Automatizazio-jarduerari nazioarteko proiektio bat eman zaio, AEB eta Kanadarako eskaera garrantzitsuak erdietsi baitira. UPTCrentzat teknologia-plan bat prestatu da eta PC bidez eta urruneko agente bidez makinaren kontrol-aplikazioetarako proiektuak garatzen ari dira matxurak diagnostikatzeko eta mantentze-lanak egiteko.

Balio handiko proiektuak garatu dira "medikuntza" sektorearentzat, makina termoformatzaile higienizagarrien katalogoa osatu da eta *flow-pack* eta barneragarrien makinetan garapen-proiektu batzuk abiarazi dira. Gainera, bultzada eman zaio Errumaniako proiektuari, eta hobekuntzak erdietsi dira kostu garrantzitsuetan; halaber,



balio-kateko prozesuak birdefinitu dira, jarraipenaren adierazleak eguneratuz.

Termoplastikozko ontziak ekoizteko estrusio puztu bidezko makineria Urola enpresak hazkunde nabarmena erdietsi du bere jardueran. Halaber, merkatuan proposamen berri bat zabaldu du: Urbi 6 berria, bere izaera berritzaileagatik interes handia piztu duena. Horrek guztiak, eta aliantzak garatzeak eta nazioarteko presentzia komertzialari indar handiagoa eskaintzeak, proiektu garrantzitsuetan parte hartzea ekarri du mundu osoan garrantzi handia duten bezeroekin, esate baterako, esnearen sektorean eta ur-botilen sektorean, besteak beste. Gero eta eskaintza osatuagoa eta erakargarriagoa proposatzeko xedea duen proiektu bat finkatzearen aldeko urrats bat gehiago da, beraz, ekipoez duten dinamismoan oinarrituta.

Konformazioa eta Mihizadura krisiaren baldintzapean daude oraindik ere, prezioak egokitu beharrak eta eskaeraren ahuldadeak eraginda. Nolanahi ere, nabarmen hazi da inbertsioa eta **Batz** eta **Matrici** enpresetan erdietsitako eskaerak eta zorroa nabarmenki hobetu dira.

Galdaketan eta Tresnerian 2010erako itxaropenak uste baino hobeto bete dira, eta erdietsitako eskaera kopurua errekorra izan da **Loramendiren** azkenaldiko historian, eta Aurrenak enpresaren kasuan ere oso kontuan hartzekoak izan dira.

Kamaren ekipamendu eta eraikuntzaren atalean, berriaz, aurreko urtean hasitako ahaleginaren bidetik jarraitu da, nazioarteko lehia-egoera indartu nahirik. Alde horretatik, bereziki azpimarratzekoa da **Kide** kooperatibak izandako bilakaera, bere Txinako filialaren esportazioko lehen salmentak egiteaz gain (Hego Afrikara eta Keniara), eta Indian salmenta batzuk eginez jarraitu arren, Moskuko eta Mexikoko bere ordezkariak komertzialak abiarazi zituen.

Bestalde, **Fagor Industrialek** bere nazioarteko proiektuak finkatzera bideratu zituen bere ahalegin gehienak, baita produktuen gama berriak garatzera ere. Era be-

rean, zenbait obra berezi ere egin zituen, hala nola Andoni Luis Aduriz chef ospetsuaren Mugaritz jatetxearen eraberritzea, Valentziako La Fe Ospitaleko sukaldaritza-zerbitzuaren kudeaketa integrala, edo Porta Fira Hotelako sukaldaritza eta elikagaien kontserbazioaren zerbitzuen instalazioa.

Beste sektore batzuetan, **ULMA Agrícolan** esaterako, 2010. urtean gehikuntza indartsu bat gauzatu da salmentetan, ustiapen-merkatuetan. Era berean, Eclipse izeneko proiektua abiarazi da energia fotovoltaikoaren ekoizpena berotegiko ekoizpenarekin bateragarri egiteko, Tecnaliarekin elkarlanean.

Azpimarratzekoak dira, halaber, Egitura Estandarra izeneko Proiektuari jarraiki sortutako 29 hobekuntzapuntuak, eta hobekuntza garrantzitsuak egin dira muntaketa, prestazio nahiz kostuetan. Proiektu honek erakundeko departamentu askoren arteko partaidetza sustatu du 2009. urtean errodajea hasi zenez geroztik.

Eta **ULMA Carretillas Elevadoras** enpresan, aldiz, azpimarratu beharra dago, kolektiboaren ahalegin eta sakrifizioari esker, egoera zuzentzea lortu dutela ia hutsaren pareko emaitza erdietsi arte. Merkatuari dagokionez, 2010. urtean hobekuntza arin bat ikus dezakegu, % 4ko gehikuntza bat izan baita 2009arekin alderatuta, eta alokairuak pisu handia izan du egin diren eragiketa guztietatik % 80 baino gehiago era honetakoak izan direlako, eta parke handitan gainera, batez ere logistika eta banaketarako enpresen partetik.

2010. urtean, **ULMA Carretillas Elevadoras** enpresak hitzarmen bat egin zuen Azkar enpresaren orga jasotzaileen hornitzaile bakar gisa eratzeko eta TDN, Seur, Kuhne Nagel, Sayca eta beste enpresa batzuetan hornitzaile gisa sartzeko, eta, horrenbestez, kontu handien merkatuan presente egoteko.

Era berean, aipatzekoa da **ULMA Manutención** enpresako bazkide gehienek bi sozietate eratzeko lortu duten akordioa. **ULMA Manutención**, batetik, **ULMA Handling Systems** enpresaren negozioa jasotzen duela, eta



bestetik, ULMA Servicios de Manutención, ULMA Carretillas Elevadoras enpresaren negozioa biltzen duela. Sozietate-izen beraren azpian hainbat urte egon ondoren, orain bi negozioek beren bidetik joko dute, erabat independenteki, ULMA Taldearen barruan, eta erabaki sendoa hartua dute bezeroarengana duten orientabidea indartzeko.

Azkenik, **ULMA Handling Systems** enpresak nazioarteko merkatuetan duen posizionamendua indartzen jarraitu du, eta merkatuko erreferentziatako bat bilakatu da Handling Systems Materialaren ingeniari-taldea jardueraren barruan. Merkatuko posizio honek estatuko merkatuan Eroski M-50 eta Felix Solis bezalako proiektuak garatzea erdietsi du; Air France eta Bonduelle Frantziako merkatuan, eta Acrilex eta EBF proiektuak Brasilgo lurraldean.

Ulma Handling Systems enpresak enplegua sortzen jarraitu du bere lurralde guztietan, eta bere jarduera arlo gehiagotara zabaltzearen alde apustu egiten jarraitzen du, Integrated Systems izeneko negozio-ildo berri bat sortuz; banaketa handien sektoreak dituen soluzio logistikoen premiei erantzuten ahaleginduko da.

Industria Osagaiak

Industria Osagaien sektoreak 1.957 milioi euro fakturatu zituen, % 25eko gehikuntza izanik aurreko ekitaldiarekin alderatuta, eta nazioarteko salmentak % 72 izan ziren guztira.

Elkarrekiko lankidetzaren esparruan aipatzekoa da, proiekturik garrantzitsuenetako bat denez gero, **MONDRAGON Automoción** finkatu izana, bere baitan Automozioaren sektorean diharduten hiru dibisio eta industria-taldeko hamabi kooperatiba biltzen dituela, eta horren eginkizuna bezeroekin dituzten harremanak sustatzea eta hobetzea eta sektorearen barruan jardura berriak sustatzea da. Alde horretatik, **MONDRAGON Automoción**ek jardura ugari burutu ditu **CityCar/Mugikortasun Iraunkorren** esparruan, eta hala, Auto Elektrikoaren proiektuak eta horrentzako Moduluak eta Osagaiak garatu ditu eta **CIDIA** sortu du, **Mondragon**

Unibertsitatearekin batera, ingeniari-taldea enpresa gisa. **CityCar** horri buruz, esan beharra dago **MONDRAGON** barruan integratuta dauden enpresek diseinatu eta garatutako lehen ibilgailua dela. Izan ere, proiektu hau gauzatzea lankidetzaren ahalegin ikaragarria izan da, betiere **MONDRAGON Automoción**en gidaritzapean eta Edertek, Koniker eta MTC teknologia-zentroen, Mondragon Eskola Politeknikoaren eta LKS Diararen parte-hartzearekin; halaber, Lotus Engineering etxearen esperientzia ere lagun izan dute proiektu horretan. Lehenengo prototipoa urtearen hasieran aurkeztu zuten hedabideen aurrean.

Automoziorako Osagaietan, 2010. ekitaldian sektore honetan bilakaera orokor eta indar handiko bat ezagutu dugu, krisiaren aurretik baino eszenatoki hobean kokatu gaituena, bai negozio-kopuruari dagokionez eta bai enpleguaren eta errentagarritasunaren maileri dagokienez ere.

2010. urtean automobilen merkatu orokorrak, hasiera batean zalantza handiko uneak bizi izan zituen arren, finantza-krisiaren eta horren ondoriozko atzerakadaren aurreko bolumenak berreskuratu ditu. Merkatu sortu berriek soilik daramate hazkundearen zama, eta aldiz, merkatu helduek 2007. urtean izandakoetara hurbiltzen diren kopuruak berreskuratu nahirik jarraitzen dute lehia bizian. Aipatzekoa da Txinak % 50ean baino gehiago laguntzen duela merkatu sortu berrien hazkunde horretan.

Testuinguru horretan, **Fagor Ederlan** hazi egin da ekitaldi honetan, eta horri esker, 2007. urteko jardura mailetara iritsi da, 3.500 profesionalerik gora enplegu berreskuratu ditu eta merkatuan duen posizionamendua sendotzea lortu du. Aurten Fagor Ederlanek bezero garrantzitsuenak erakartzea lortu du negozio-lineen multzoan, bai Europako proiektuetan eta bai maila orokorrean ere, eta horren adibide dugu BMWren Mini berriaren proiektua Discos etxearentzat. Bloke-ekoizpenaren arloan moldaketa-linea berri bat instalatzeari ekin zaio, etorkizuneko blokeen ekoizpenerako funtsezkoa izango dena.

Europa Erdialdean, Europa Ekialdean eta Brasilen duen presentziaz gain, Fagor Ederlan soluzioen hornitzaile orokor gisa sendotu da automozioaren sektorean, Txiki-

nan 2012. urtetik aurrera ekoizpen propioa garatuz eta sektore honetan garrantzitsuak diren gainerako eskualdeetan (Korea, AEB eta Txina) garatutako aliantza estrategikoen bidetik jarraituz.

Teknologia berrien gorakadak eta merkatuan elektrifikazioa bat-batean sartu izanak erronka berriak ekarri ditu Fagor Ederlan bezalako enpresentzat, eta hala, Lotus Engineering etxearekin lankidetzaren proiektu bat finkatu du Range Extender motorra ekoizteko eta merkatuan jartzeko; proiektu hori, hain zuzen ere, 2010ean amaitu zen motor horren belaunaldi berriaren prototipoak ekoizteko hitzarmenarekin.

Mapsak, sektorean bizi izandako testuinguru aldakor horretan, amaiera eman dio zailtasunez beteriko ekitaldiari, eta mugari kualitatibo garrantzitsuak erdietsi ditu, esate baterako, bere zorroa arlo gehiagotara zabaltzea eta milioi eta erdi unitatetik gorako jardueraren mailetan finkatzea.

Ecenarro enpresak sendotu egin du balio erantsi handiagoko produktuetara zabaltzeko proiektua pieza bereziak garatuz, bai ekoizpen mailan, hotzeko estanzazio-linea berri bat ezariz, eta bai bezero berriak erakarriz ere.

Maier enpresan akabera eta estetika berriak garatzen eta aplikatzen jarraitu dute, berrikuntza garrantzitsuak egin dituzte beren produktuetan eta bere Ikerketa Zentroan (MTC) birmoldaketa eta hedapen garrantzitsu bat amaitu dute. Halaber, eskaerak erdiesteak ekoizpen-gaitasunaren okupazio handi bat eragin du. Testuinguru honetan, nazioartera zabaltzeko proiektuak aktibatuta dira, eta horiek datorren urtean gauzatuko dira.

Cikautxo enpresak aplikazio berrien eta bere prozesuen produktibitatearen aldeko apustuari eutsi dio, eta hala, erdietsitako eskaeren kopurua gainditu du, estrusio-negozioan bilakaera aipagarria izanik eta etxetresna elektrikoetarako osagaietan ere bilakaera positiboa izanik. 2010. urte honetan nazioartera zabaltzeko apustua sendotu du, Indian eta Txinan ezartzeko hitzarmenak gauzatuz, eta 2011n ekingo diete jardunari.





FPK enpresarentzat 2010 aldaketa handiko urtea izan da, sozietatea Kooperatiba bihurtzeko prozesua gauzatu baita, eta halaber, bi filial eskuratu ditu gero, bat Alemanian eta bestea Brasilen, eta era horretan, 3 aldiz handitu du beren enpresa-hedadura.

Batz Sistemas etxeak Txina, Txekia eta Mexikoko lantegiak garatzen jarraitu du, eta bezeroak arlo desberdinetara zabaltzeko estrategia finkatu du. Era berean, aipatu beharra dago eguzki-energia termikoaren sektorean sartu dela zilindro parabolikoko eta dorreko zentralentzat egitura-osagaiak eskaintzen hasi baita. Horrez gain, FPKren negozioarekin elkarlanean aritzeko eta gidaritza eramateko ardura hartu du, bi enpresa horien arteko lankidetzaproiektu batean.

Etxetresna Elektrikoetarako Osagaietan, berriz, 2010. urtean goranzko joera topatu dugu negozio-bolumenari dagokionez, eta esportazioko merkatua izan da, neurri batean, joera horretan protagonista. Aurtengo salmentak % 20 baino gehiago hazi dira 2009. urteko kopuruekin alderatuta. Nahiz eta oraindik ere urrun dauden aurreko urteetako mailak, osagaien negozioak nabarmenki handitu du merkatu-kuota aurreko urtearekin erkatuta.

Gehikuntza horren zati garrantzitsu bat gas-egosketako eta segurtasun termoelektrikoko negozioetan topatzen dugu Europan segurtasuna ezartzea nahitaezkoa bihurtu delako eta sukalde bitrozeramikoen merkaturan zenbait aldaketa gertatu direlako. Erdi-eroaleen eskaeran, batez ere ekialdeko merkaturan izandako gehikuntza indartsuak eta garbiketarako osagaietan duen posizionamendu onak lagundu egin dute jarduera hori hobetzen.

Proiektu berriei dagokienez, osagaien negozioan hazkunde-bide berrien alde egiten jarraitu da. Horregatik, aurreko urteetan hasitako negozioak finkatzen joan dira, hala nola, **EHE** kooperatiba, mikrosorkuntza-sistematarako sortua; **Ceramat**, gas-erregailuetarako; **Isoleika**, panel isolatzaileetarako, eta halaber, termoelektrizitateko proiektuak eta egun garapen-fasean aurkitzen diren superkonduktibitateko proiektuak.

2010. urtean, halaber, etxearen testuinguruko energia iraunkorretan diharduen teknologia-zentro gisa sendotu da Stirling Zentroa. Energia berriztagarrien sektorean, azpimarratzekoa da enpresa kooperatibo berri bat sortu dela, **Soterna** izenekoa, Oteitza herrian (Nafarroa), eta bertan, eguzki-sistemak ekoizten dira 150 litroko depositu integratuarekin.

Petrolio-gasa prozesatzeko hodiatarako brida eta osagai forjatuetan, lantegi petrokimikoetan eta energia-sorkuntzan, ULMA Piping enpresarentzat ekitaldi ona izan zen merkatuaren egoera kontuan hartzen badugu. 2010. urtean, batik bat, erreferentzia ugariaren industrializazioa gauzatu da, eta urrats erabakigarriak egin dira, EPC dibisioa sendotzeko orduan, ingeniariari zuzenean erantzuteko, eta horrekin batera, ekoizpen-gama osatu da material berezietan, lote txikietan eta ekoizpen malguan espezializatutako forja berri bat eskuratzearekin batera.

Kobrezko eta aluminiozko eroale elektrikoetan, Ederfil-Becker enpresak hazkunde indartsua lortu du bere fakturazioan, eta bide batez, eraginkortasuna kontrolatu eta bilatu du, gastuak eta produktibitateak hobetuz, eta horri esker, errentagarritasuna sendotu du. Oinarri horren gainean, kanpoko merkatuetan duen posizioa eta prozesu eta zerbitzuetan duen eraginkortasuna hobetzera bideratu ditu bere ahaleginak, pertsonen antolamendua eta eginkizunak hobetuz.

Transformadoreen arloan, 2010 eta 2011 urteak trantsizio-urteak izango dira **Alkargo** enpresarentzat, Espainiako sektore elektrikoan inbertsiorik egin ez delako. Horregatik, aurrera egin nahi da kanpoko merkatuetan barneratzen eta ezagutzak eta instalazioak garatzeko proiektua ezartzen, potentzia handiko tartekak eskaini ahal izateari begira. Horiexek izango dira, pertsonen eta prozesuen sendotzearekin batera, etorkizuneko zutabeak.

Bestalde, **Hertell** enpresak, hutseko zisternetarako osagaien ekoizleak, orain dela urte batzuk hasitako kanpo-hedapenaren bide horretatik jarraitu du.

Garraigailuetarako osagaietan, 2010. urtea bigarren urtea izan da ULMA Conveyor Components enpresarentzat, ULMA Taldearen barruan integratutako negozio independente gisa. 2009. urtean Plan Estrategikoa burutu zen, eta hortik abiatuta, Prozesuetan oinarritutako Kudeaketa Sistema jarri zen abian 2010. urtean, 2009. urtean diseinatua, eta hala, bere barne-koordinazioa eta bezeroari erantzuteko gaitasuna hobetu da. Era berean, Berrikuntzaren Kudeaketa Sistema ezarri zen eta bere produktuari balio handiagoa ematen eta bere Ikuspegira gehiago hurbiltzen lagunduko duten zenbait proiektu burutzen hasi ziren. Beste alde batetik, kanposalmenten sarea indartu zen eta, nazioartera zabaltzeko prozesu horretan, estrategikotzat jotzen diren bezeroen homologazioak erdiesteko lan egin zen.

Eraikuntza

Krisiak berebiziko eragina du sektore honetan, batez ere beren jarduerak Espainiako merkatura mugatzen diren negozioetan. Eraikuntzaren sektorean MONDRAGON taldean barneratuta dauden jarduerak 1.029 milioi euroko fakturazioa izan zuten, 2009. urtean lortutako emaitzen bide beretik, eta nazioarteko salmentak negozio-kopuru osoaren % 43 izan ziren.

Jasokuntza Dibisioan, bai salmentak eta bai emaitzak ere, hobetu egin dira aurreko urtekoekin alderatuta. Ekitaldi-itxiera hori bikaintzat joenezake, kontuan hartzen badugu eraikuntzaren sektoreak etengabe behera egin duela etxebizitzetan eta kontsumo-adierazleek eta inbertsio-adierazleek ere oraindik ahalduaren seinaleak ematen dituztela.

Emaitza horiei eustearren, benetan ahalegin handiak egin behar izan dira eskaera maila berrietara eraginkortasunegokitzeko, eta ahalegin handiak egin behar izan dira, halaber, baliabide estrategikoen kontsumoan eta inbertsioan eta kontserbazioko merkatu-kuota eskuratzeko orduan.

Enpleguari dagokionez, 2010eko ekitaldian Irlanda, Herbehereak eta Belgikako herrialdeetan izandako hazkunde ez-organikoaren ondorioz batik batik, **Jasokuntza Dibisioak** % 10eko plantila-gehikuntza izan du, eta hala,

ekitaldiaren amaieran gero eta profil nazioartekoagoa duten 4.052 lanpostu daude.

Aurten ere, eskakizun handiko eszenatoki honetan, instalazio berrietan izandako murrizpen berriaren ondorioz eta bai kontserbazioan eta bai instalazioetan merkatuko baldintzak okerrera egin dutenez, nazioarteko eremuak lagundu egin du Espainiako merkatuan izandako jardueramurrizpena neurri batean konpentsatzen.

Finantza-egoerari dagokionez, Dibisioak bilakaera sendoa izan du eta auto-finantzaketarako gaitasun handia duen eszenatoki batean kokatu du, eta horrek indartu egin du bere posizioa, gero eta aldakorragoak eta eskakizun handiagokoak izango diren hurrengo urteei begira.

2010. urtea, beraz, ebaluazio-urte bat izan da, PEDEL zikloaren amaiera, baita gogoeta-urte bat ere, hurrengo lau urteetarako ardatz estrategikoak definitzeko begira. Ikuspegi Estrategikoa (VEO 2011-2014) bost ardatzetan oinarritua egongo da: nazioartea, zerbitzua, errentagarritasuna, eraldaketa eta berrikuntza.

Berrikuntzak, gauza guztien gaineratik, garapenaren oinarritzeko ardatz gisa jokatzeko du oraindik ere, betiere etorkizunari begira. 2010. urteak **Orona IDE0 – innovation city** proiektuan aurrera egiteko ere balio izan du, eta proiektu garrantzitsu hori, zalantzarik gabe, mugarrirabakigarria izango da berrikuntzaren eremuan eta Europako erreferentzia bilakatuko da.

Orona IDE0 – innovation city proiektua toki fisiko gisa pentsatua dago, eta berrikuntza-jardueretan parte hartzen duten eragile nagusiek modu sinergikoan jardungo dute. ORONA enpresaren bultzada Orona eic, Orona Fundazioa, Orona G3A, Mondragon Unibertsitatea eta Ikerlan-ik4 enprekin lotuta dago. Proiektu honen bidez gauzatu nahi da.

Proiektu honen bidez hezkuntza eta ikerketaren eremuak berrikuntzaren gaitasun propioekin bateratu daitezela lortu nahi da, merkatuak berekin dakarren karrera teknologiko horretan Jasokuntza Arloak duen posizioa bermatu ahal izateko.



108.000 metro koadroko azalera eta 160 milioi euroko inbertsio orokorra duela, proiektu honek kualifikazio handiko 1.000 enplegu sortzea ahalbidetuko du eta barruti fisiko beraren barruan zientziaren, hezkuntzaren eta enpresaren eremuak bilduko ditu.

Arlo honek ibilerraztasuneko eta hiri-mugikortasuneko soluzioetan esperientzia handiko posizioa mantentzen jarraitzen du bai Estatu mailan eta bai nazioartean ere. Alde horretatik, aipatzekoak dira 2010. urteko ondorengo obra berezi nagusi hauek:

- Estatu mailan, Bartzelonako Metroa, Bilboko Metroa, Alacanteko, Santiagoko eta Castellóko Aireportuak, eta Reuseko Tecnoparca, besteak beste.

- Nazioarte mailan, Versailleseko Parkinga eta Clermont Ferrandeko Jean Perrin Zentroa Frantzian; Shannoneko Nazioarteko Aireportua eta Aviva Stadium Irlandan; Espirito Santo Ospitalea eta Carlos Amarante Eskola Portugalen; Erresuma Batuan, Bristolgo Aireportua, Basketball Arena eta Salisburyko Law Courts; eta amaitzeko Viers-troom Zorging eta VDI Herbeheretan, besteak beste.

Eraikuntzarako Sistema industrializatuetan, **ULMA Construcción** enpresak, merkatuan moteltasuna nagusitu arren, beherakada arin bat izan zuen 2010eko kopuruaren aldean. Negozio-kopuru horren % 60 kanpoaldeko merkatuetatik etorri zen. Espainiako merkatuaren egoera nahasia eta etorkizuneko perspektibak kontuan hartuta, merkatu horri erantzuten dion sare nagusia nola sare logistikoa komertziala berregituratu ziren, eta horren ondorioz, egokitzapen indartsu bat egin behar izan da.

Construcciones Metálicas, URSSA enpresak ekitaldi on bat izan zuen, eta bere negozio kopuruak % 10etik gorako hazkundea izan zuen, nazioartean gero eta zabaldu eta posizionamendu hobea edukitzeari esker. Joan den ekitaldian burututako proiektu berezien artean honakoak aipa genitzake: Hiri Eraikuntzan, "Foundation Louis Vuitton" eraikina Parisen, Frank O. Gehryk diseinatua, eta Bi Mendeko Kultur Zentroa, Buenos Aireseko garai bateko Posta Jauregian; eta Obra Publikoan, berriz, Bilbora iristeko zenbait bide-zubi Interbiak en-

presarentzat, baita beste 5 zubi ere, eta hauen artean nabarmendu beharko genuke, egitura metalikoan 1500 tona dituelako, Dos Valireseko Tunela, Encamps herrian, Andorran. Azkenik, Ekipo Ondasunetan, Paceco España enpresak Urssari esleitu zion portuko bi garabiren eraikuntza, biak ere 1.900 tonako egitura izanik, Tarragonako (Espainia) eta Sineseko (Portugal) portuentzat.

Eraikuntzarako Aurrefabrikatuetan, **ULMA Hormigón Polímero** enpresak % 100ean bete zuen fakturazio-plana, eta beraz, emaitza bikainak erdietsi zituen. Era horretan, eta salmentetan murrizpenak izan arren, arrakastaz gainditu du 2008tik 2010era bitarteko hiru urteko krisia. Egindako lorpen garrantzitsuenak hauek izan dira: Kostuen eta gastuen egokitzapen-planari esker produktibitatea hobetu egin zen, eta horrek, materialen inputak egoki kudeatzen lagundu zuen, zeuden aukerak baliatuz.

2011tik 2014ra bitarteko epealdirako Plan Estrategikoari buruz gogoeta egin ondoren, ondorengo jarduerak proposatu ziren: negozio-linea berri baten promozioa bultzatzea (Fatxadak ixtea), teknologiaren transferentziarako negozioaren promozioa sustatzea, hodi elektrikoak bideratzeko jarduera indartzea, Brasilen ezartzea eta munduan banatzaileen oinarria zabaltzea, antolamendu funtzionala berrikusi eta egokitzea eta Hobekuntza kudeaketa-eredua indartzea eta Aginte Koadro Integralaren (A.K.I.) kudeaketa-tresna ezartzea.

Etorki, zerrategi-lanetan eta egurraren baso-ustiapenean diharduela, % 28ko hazkundea izan zuen joan den urtean izandako jarduerarekin alderatuta, batez ere esportazioarekin lotutako salmentei esker eta bere jardueraren sektore batzuetan lortutako sendotzeari esker, hala nola europaletak.

Kudeaketaren ikuspegitik azpimarratzekoa da 2010. urtean industria-enbalajearen azpisektore desberdinetarantz arlo komertzialean bideratu izana eta baso-ustiapenaren jarduera indartu izana, horri esker enborkiaren horniduran duen posizioa sendotu baitu.

Lana enpresa, enkofratuetarako zur-gaien fabrikazioan eta zur laminatuko egituren diseinu, kalkulu eta mun-

taketan diharduenak, % 10ean handitu zuen bere fakturazio-bolumena 2009. urtearekin alderatuta, Iberiar Penintsulan eraikuntzaren sektoreak beheraka egiten jarraitu duen arren eta Europaren gainerakoan jarduera honek moteltze handia bizi izan duen arren.

Hori lortzeko arrazoiak hauek izan dira: Txekiar Errepublikan duen filialaren bitartez, Europa Erdialdean eta Ekialdean bere salmentak areagotu izana, Afrika Iparraldean ahalegin komertzial handia egin izana, bere dokumentu-zorroan produktu berriak sartu izana eta egur laminatuko egituren negozioan (**ELUR**) aurrera egin izana.

Hori guztiari, halaber, egitura minimizatzeko, gastuari eusteko eta barne-eraginkortasuna areagotzeko aplikatutako barne-neurriak gehitu behar zaizkio, eta 2009ko emaitzen gainean inflexio-puntu bat markatzea ahalbidetu du horrek.

Enpresa-Zerbitzuak

Oro har, urte hasieran deskribatutako egoera ez da aldatu, baina sektore batzuetan funtsezko aldaketak gertatu dira. Izan ere, fluxu ekonomikoak ihes egin du eraikuntzaren sektoretik, are gehiago Espainiako merkatuan. Sektore horrekin lotuta dauden jarduera guztiek —**LKS Ingeniaritza, Ondoa, MCCTELECOM**— eskariaren beharakada nabarmena eta aurrekaririk gabeko prezioen gerra bat jasan behar izan dute.

Alderdi negatiboekin jarraituz, 2010. urtean inbertsioak eta gastu publikoak gutxitzen joan dira pixkanaka. Horrek jarduera guztietan izan du eragina, **LKSn, LKS Ingeniaritza** eta **Alecopen** batik bat, horiek lan handia egiten baitute sektore publikoan.

Baina, testuinguruak asko lagundu ez arren, berritzeko eta nazioartera zabaltzeko ahaleginek emaitza garrantzitsuak izan dituzte. Politika garbi bat da, duela urte batzuk abiarazi eta fruituak ematen ari dena. Gauzak horrela, Dibisioko jarduera guztiek onurak izaten jarraitu dute.

Gainera, beste herrialde batzuetan kokatu dira: Txinan,

Indian, Kolonbian, Txilen... azken urteetan bide berriak irekitzen joan baitira beren balio-proposamenetan etengabe berrikuntzak eginez.


LKS Aholkularitzak lortutako salmentak, adibidez, % 97koak izan dira 2009. urtearekin alderatuta, eta erreferentzia esanguratsuak izan dira, esaterako, Lazkaoko Forjak erosteko proiektu integrala eta Repsoleko negozio-unitate eta departamentuetako kudeaketa-eredua.

Eraikuntza-merkatuak eta obra publikoak behera egin arren, **LKS Ingeniaritzak** % 91ko salmentak lortu ditu 2009. urtearekin alderatuta eta % 12ko hobekuntza izan du emaitzetan; izan ere, oso lan garrantzitsuak egin ditu, hala nola, Zorrotzaurreko (Bilbo) hirigintza-aukeri buruzko azterlana, Gasteizko Buesa Arena pabilioi berria eta PUNEn (India) Danobat kokatzeko euskarria.

Abantail finkatu egin da 2010ean, azken hiru urteetan hazkunde garrantzitsua izan ondoren. Gauzatutako proiektuen artean, Oronarentzat egindako web bidezko konfiguragailu komertziala edo Aurrenak enpresarentzako konfiguragailuan injekzio-moldeen garapena azpimarratu behar ditugu.

Ondoa enpresa ere oso merkatu konplexuan dago, baina malgutasunez erantzun die bezeroen eskaera gero eta konplexuagoei. Eskaintza eskaera baino askoz handiagoa da eta horrek prezioen borroka gogor bat eragin du. Hala eta guztiz ere, 2010ean % 100ean mantendu da joan den urteko ekitaldiarekin alderatuta eta enpresa-emaitzak % 40 baino gehiagokoak izan ditu 2009koekin alderatuta. 2010ean gauzatutako proiektuen artean, honako hauek ditugu: Toledoko Ospitaleko aire-girotzea eta PCI interkonexioa Acciona eta Ferrovial enpresentzat; Basque Culinary Center fundazioaren instalazio mekanikoak; edo Gipuzkoako Gizarte Segurantzako erakinetako instalazioen mantentze-lan integrala.

MSI enpresa mundu osoan zehar dituen proiektuetan murgilduta dago: uraren ponpaketa-estazioak Arge-liako Mostaganem hirian Isolux Corsa enpresarentzat; tentsiopeko lauketa-lineak Txinako Benxi hirian; edo desugerketa-linearen berrikuntza Mazedonian, Arcelor





Mittalentzat. Horretarako, ahalegin handiak egin behar izan dituzte proiektuen nahiz pertsonen antolakuntzan. Azkenean, salmentak % 115ekoak izan dira 2009. urtekoekin alderatuta, baina 2009an baino emaitza apalagoak izan dituzte, nazioartera zabaltzeko ahalegin horretan egin diren zuzkidurengatik.

Eraikuntzarekin duen loturaren eraginez, merkatuaren erorketak kontuan hartzeko moduko ondorioak eragin dizkio **mcc-telecomi**. Nolanahi ere, % 107ko salmentak lortu ditu aurreko urtearekin alderatuta, eta emaitzak ere antzekoak izan dira. Izan ere, honako proiektu hauek egin ditu, besteak beste: Extresol eta Manchasol eguzki-energia termikoaren zentraletak telekomunikazio-sistema Cobra eta Sener enpresentzat; Oñatiko Unibertsitate Campus berriko sare elektronikoa; eta birtualizazio- eta biltegiatze-zerbitzua Guardian Glassentzat.

Hezkuntza-zerbitzuen alorrean, **Alecopek** % 68ko emaitzak izan ditu 2009. urtearekin alderatuta, eremu publikoko hezkuntzan egin diren gastu-murrizketek eraginda, batetik, eta Aljeria eta Hego Amerikako proiektu jakin batzuk ez erdietsi izanagatik, bestetik. Kooperatiba bere negozioen transformazio-prozesu batean txertatua dago, eta 2011tik aurrera bere fruituak ematen hasi beharko luke.

Mondragon Linguak ekitaldi bikaina izan du, aurrerapauso garrantzitsuak eman baititu bere zentro tradizionalak finkatzean, eta baliozko proposamenak eta berrikuntzaren aldeko apustuak berriitu ditu. 2010ean % 101eko salmentak izan ditu aurreko urtearekin alderatuta eta askoz emaitza hobekak lortu ditu, % 344. Amaitu den urtean, bezero berriak egin ditu, hala nola, Vidrala, Tekniker eta Eusko Legebiltzarra.

Arte Grafikoan sektorean, 2010a oso urte garrantzitsua izan da **MCC Graphicsentzat**, salmentetan % 2,5eko errentagarritasuna lortu baitu balio erantsia hobetzeko estrategia zorrotz bati jarraituz, Frantzian bezero estrategiko batzuk eginez (hazkunde handia eragin du) eta gastuak eta kostuak nabarmen murriztuz.

Gainera, proiektu erakargarri eta itxaropentsu bat definitu du etorkizunerako; horren bidez, negozio guztiak enpresa batean bateratzeaz gain, esparru digitalean eta IKTetan oinarritutako komunikaziorako beste zerbitzu eta euskarri batzuk landu nahi ditu erabakitasunez eta zabaltasunez.

banaketa 01//03

03




Arlo hau **Eroski Taldeak** eta **Erkop** enpresak osatzen dute, baita horien entitate partaidetuek ere. Lehenengoaren jarduera nagusia txikizkako merkataritza da eta Eroski S. Coop. da sozietate nagusia; bigarrena, ordea, nekazaritzako elikagaien sektorean diharduten bost kooperatibek osatzen duten bigarren mailako kooperatiba bat da.

2010. ekitaldian familia-kontsumo geldoko egoera ekonomikoak bere horretan jarraitu du, eta horrek ondorioak eragin ditu txikizkako banaketaren sektorean. Egoera horri aurre egiteko, Eroski Taldeak kalitate egiaztatuko eta prezio lehiakorreko marka propio berriak merkaturatu ditu kontsumitzailearentzat erakarriak izan daitezzen.

Marka horien artean, maiz erabiltzen ditugun produktuen gama bat azpimarratu behar da, prezio baxu iraunkorreko 226 erreferentziak osatua, elikagai ontziratua, produktu fresko, eta bazarreko nahiz garbiketarako artikuluen artean. Era berean, edergintzarako eta ongizaterako produktu-linea berri bat jarri da salgai, 128 produktu-erreferentziaz osatua. Produktuak hipoalergikoak dira eta kliniko eta dermatologikoki testatuak daude.

Bezeroei erosotasuna eskaintzeko asmoz, Internet bidezko zerbitzu-sarearen aldeko apustua egiten jarraitu da linea komertzial berriak irekiz. Online supermerkatua beste hamar hiritara hedatu da, zerbitzu hori dagoeneko abian zuten 14 hiriez gain; zerbitzuak gero eta salmenta-bolumen handiagoa du eta % 32ko igoera izan du 2009. urtearekin alderatuta.

On line eskaintza areagotu egin da elektronikako eta etxetresna elektrikoek denda irekitzearekin batera, eta hala, zerbitzu hori 34 probintzian eskaintzen da dagoeneko. Nabigazio-sistema simple baten bitartez, erabiltzaileak produktuak erraztasunez aurkitu eta elkarrekin alderatu ditzake; gainera, eskaintza eskusiboak izango dituzte eta posta elektronikoz eskaintza guztiak jasoko dituzte.



Eroskik profil ofizialak ditu bi gizarte-sare arrakastatsuenetan, Facebooken eta Twitterren alegia, eta 500 jarraitzaile ditu lehenengoan.

Dendak hobetzeko prozesua ere jorratu du Eroskik 2010ean, energiaren auto-hornikuntza sustatu baitu energia eraginkorrak eta ekologikoki iraunkorrak erabiliz; horien bitartez, ohiko dendekin alderatuta, asko aurrezten da bai kontsumoari bai CO2 emisioei dago-kienz ere.

Erkopi dagokionez, honako hauek izan dira 2010eko gertaera garrantzitsuenak: Vega Mayor enpresarekin egindako lankidetzaren hitzarmena garatu du hark IV. gamako produktuak sal diezazkion, eta bide batez, Artandi sozietateari bultzada erabakigarri bat emateko balio izan du (Garaia eta Barrenetxe kooperatibek partaidetza dute sozietate horretan); Kalitatea Fundazioaren baratzeko produktuak merkaturatu ditu; Auzo Lagun Taldean anbizio handiko lidergo-proiektu bat abian jarri du; eta Euskadiko Elikadura Aurreklusterraren lehen-dakaritza hartu du bere gain, erakunde horrek bere barnean dagoeneko 32 enpresa hartzen dituela.

Guztira, **Banaketa Arloak** 8.277 milioi euroko salmenta gordinak izan ditu 2010ean, % 2,4ko murrizpen txiki bat izanik aurreko ekitaldiarekin alderatuta. -327 milioi euroko inbertsio garbiak izan dituzte, aurreko urtean desinbertsioak egin baitziren higiezinetan, nahiz eta gero higiezin horiek alokairu-erregimenean eta estrategikoak ez diren beste zenbait aktibotan erabiltzen jarraitu duten. 2010ean enpleguaren barruan 42.260 lanpostu izan dira batez beste, baina lanaldi partzial eta lanaldi osoen arteko aldea kontuan hartuz gero, lanpostu kopurua asko igotzen da, 49.000 pertsona ingurura, hain zuzen.

Errentagarritasunari dagokionez, Eroski Taldeak -64 milioi euroko emaitza garbiarekin amaitu du 2010eko ekitaldia, aurreko urtean baino % 7 hobea. Eroski S. Coop. Taldeko Nagusiak 93 milioi euroko mozkinak lortu dituen arren, 70,5 milioi euroko zama batek baldintzatu ditu emaitza orokorrak, hain zuzen ere, okerrera egin duten aktiboen balioarentzat xedatuak, nazioarteko kontabilitate-araudiak finkatuta dituen irizpideekin bat etorritik. Beste alde batetik, Erkop kooperatibek 15 milioi euroko Emaitza positiboak erdietsi dituzte 2010ean.

Halaber, nabarmendu behar da **Gizarte Erantzukizuneko** 8000 SA ziurtagiria zazpigarren urtez jarraian berri dela. Oraingo honetan, kanpoko kontu-ikuskaritza baten berrespena lortu dute, eta gainera, aurten lehen aldiz, ez da alde aurretiko ohartarazpenik egin, baina hori ez da oztopo izan ziurtagiria arrakasta handiz gainditzeko.

Azkenik, eta Eroskiren **irudia** indartzen duten gertakariekin lotuta, esan beharra dago Eroski marka Espainiako bederatzigarren markarik onena dela, Coleman CBX marken aholkularitza-enpresa estrategikoak egindako azterlanaren arabera. Era berean, joan den urtean, sarien XXII. edizioan, Eroskik "Espainiako Elikagaiak" saria jaso zuen Ingurumen, Landagune eta Itsas Inguruetako Ministerioaren eskutik, elikagaien banaketaren eta salmentaren kategorian.

ezagutza 01//04

04



Sektore eta proiektu Korporatibo berrien sustapena

2010ean, Sustapen Zentro Korporatiboak ahalegin berezia egin du "MONDRAGON Health" proiektua indartu dadin, eta horixe izan da, hain zuzen ere, Korporazioak Osasunaren sektorean egin duen apustua. Emaitza garrantzitsuak ematen hasi da dagoeneko, eta adibidez, ikus dezakegu adinekoen sektorea, e-health, osasun-sektorerera xedaturiko hezkuntza, eta osasunaren sektorean industria-gaitasunen aplikazioa sustatu duela. MONDRAGONentzat hazkunde-eragile indartsu bat prestatzea da epe ertaineko helburua.

Era berean, Sustapen Zentrotik BAC (Business Acceleration Center) baten sorrera dinamizatu da Korporazioko dibisio desberdinen artean elkarrekiko lankidetzaren proiektuak sustatzeko. Proiektu berrien definizioan eta horiek sustatzeko moduan lan egiteaz gain, jarduerak, lan-dinamika eta elkarlaneko ekintzaitzaren emaitzak hedatzeko zentro bihurtu da Elkarbide foroaren bitartez.

Ikerketa eta Ezagutza

Berrikuntza teknologikoa eta prestakuntza MONDRAGONen Ezagutza arloa osatzen duten oinarriko elementuak dira.

2010ean MONDRAGONek 144 milioi euro bideratu zituen I+G+b-ra; horietatik 16,8 milioi Zientzia eta Teknologia Plan korporatiboaren barruan erabili ziren, eta gainerakoa, berriz, teknologia-zentroyen eta Mondragon Unibertsitatearen artean.

2010ean, Industria Arloak balio erantsiaren gaineko % 7,72ko aurrekontua bideratu zuen I+G-ra, eta aurrekontu hori kooperatibetako I+G Departamentuen bitartez, teknologia-zentroyen jardueraren bitartez, Zientzia eta Teknologia Plan korporatiboaren bitartez, eta Garaia Berrikuntza Gunearen bitartez bideratu zuen, hain zuzen ere. Guztira, 716 asmakuntza-patente ditu Korporazioak.

Gainera, 20 Zenit proiektutan, 14 Etorgai proiektutan eta Zientzia eta Teknologia Planeko gaiekin zuzenean lotuta dauden nazioarteko 42 proiektutan parte hartu du, eta horietako 12tan Korporazioaren zentro eta enpresak dira lide-



rrak. Bestalde, Planaren barruko 70 ikerlarik planarekin lotutako gaiei buruzko doktore-tesia egin dute.

Azkenik, 2010ean Industria Arloko salmenten % 21,4 produktu eta zerbitzu berriak izan ziren, hau da, duela bost urte existitzen ez ziren produktu eta zerbitzuak; ratio hori bikoiztu egin da bost urtetan, mundu osoko gure produkzio- eta zerbitzu-jarduerak nazioartera zabaltzeko eritmoari jarraituz.

Zientzia eta Teknologia Plan Korporatiboa

Indarrean den 2009-12ko Zientzia eta Teknologia Planaren bigarren urtea izan da 2010a. Proiektuak planifikatutakoaren arabera garatu dira eta kooperatibek parte-hartze aktiboa izan dute, bertan landu diren ikerketa-ildoen izaera estrategikoa dela eta. Oinarritzat hartu den berrikuntza-ereduak emaitza onak izan ditu eta eredu horrek nazioarteko ikuspuntu garbia izan du.

Zientzia eta Teknologia Planaren helburuen artean, honako hauek aipa daitezke: berrikuntza asko sustatzea, erakundearen eragin handia izango duten proiektuen bitartez; funtzionamendu harmonikoan lagundu behar du, enpresen eta eragile teknologikoen arteko lankidetzan, interes bera duten partzuergoak sustatuz, jakintzak transferitu ahal izateko; eta, azkenik, Mondragon Unibertsitatearen eta gure Teknologia Zentroen jarduerak bideratu, koordinatu eta lerrotatuko dituen politika korporatiboarentzat baliagarria izan behar du.

2009-12 aldirako Zientzia eta Teknologia Planak honako gai hauek hartzen ditu barne:

- Material eta fabrikazio-sistema berriak
- Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak
- Energiarako eta Iraunkortasunerako Teknologiak
- Osasunerako Teknologiak
- Enpresa Kudeaketarako Teknologiak, eta Balioei eta Kudeaketa Parte-hartzaileari buruzko Ikerketa

Planak I+G-ko 22 ildo estrategikoko biltzen ditu, eta 39 kooperatiba, gure teknologia-zentro guztiak eta Mondragon Unibertsitateak ari dira ildook lantzen. Proiektu horiek Korporazioarentzat arrisku handien dutenak eta epe luzera egin behar direnak dira, gero horiek negozioetara eta merkatura bideratzeko.

Teknologia-zentroak

- **Ikerlan-IK4** Korporazioaren erreferente historikoa da ikerketaren alorrean. 2010ean 20,2 milioi euroko diru-sarrerak lortu zituen; horietatik 6 milioi ikerketa- eta estrategia-proiektu propioetara xedatu ziren eta proiektuok Eusko Jaurlaritzak, Estatuko Administrazio Orokorrak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Europar Batasunak finantzatu zituzten; 12,7 milioi euro, berriz, enpresekin egindako kontratupeko I+G proiektuetara bideratu ziren. Arrasate-Olandixo, Arrasate-Garaia eta Miñaoko (Araba) egoitzetan 225 ikerlarik eta teknikarik egiten dute lan, eta baita 41 bekadunek ere.

Europar, IKERLAN-IK4k 4 milioi euroko finantziariozifra metatua mantendu du 7. Esparru Programan.

2010. urtean, IKERLAN-IK4k hainbat lankidetzahitzarmen sinatu ditu, honako hauek, esaterako: Viena Unibertsitate Teknikoarekin (TU Viena) eta Edinburgoko Unibertsitatearekin, "Sistema Txertatuen" ikerketari buruzkoa; Lovainako Unibertsitatearekin (KULovaina), "Diseinua, Simulazioa eta Egitura Mekatronikoen kontrolari" dagokionez; Valentziako Unibertsitate Politeknikoko CGIP taldearekin, "Produktu eta Zerbitzu guztietarako Pertsonalizazioari" buruz; eta Akisgraneko ISEA-RWTH Unibertsitatearekin "Potentzia-elektronikako sistemen bihurteta eta kontrolari" eta "Energiaren Metatze Elektrikoari" dagokionez.

Ekitaldi honetan, PRESSENSOR S.L. enpresa berria sortu da ZAREL Taldearekin eta CIDETEK-IK4 zentroarekin batera. Enpresa berri horrek politiofenoetan oinarritutako presio-sentsoreak ustiatzen ditu aplikazio-eremu desberdinetan, eta CIDETEK-IK4k eta IKERLAN-IK4k sensorikari buruzko beren ezaguerekin lagundu dute.

IKERLAN-IK4k sortutako ezagutza-babesari dagokionez, Mikrosistemen jarduerarekin zerikusia duten beste bi patente bideratu dira. Gainera, Jabetza Erregistro bat egin da Teknologia Disruptiboak Balioesteko Metodologia baten inguruan.

- **Ideko-IK4** fabrikazio eta produkzio industrialeko teknologietan espezializatutako teknologia-zentroa da eta haren misioa enpresa berritzaile eta lehiakorrez osaturiko ingurune honetan garapen iraunkorra sustatzea da.

2010a oso urte positiboa izan da Ideko-IK4rentzat, urteko batez besteko % 4,3ko igoera izan baitu, eta 7,6 milioi euroko diru-sarrerak gainditu ditu. Zenbateko horretatik, % 65a enprekin egindako kontratupeko I+G proiektuei dagozkie, eta gainerako % 35a, ordea, ikerketa-proiektuei, hainbat erakunderen laguntzarekin.

Urte osoan zehar, Ideko-IK4k aktiboki inbertitzen jarraitu du bere instalazioetan. Ideko-IK4k inbertsio handia egin du ekipamenduetan, milioi bat euro baino gehiago inbertitu baititu. Estatuko Aurrekontu Orokorrek finantzatu dute, eta hiru jarduera-eremu hauetan erabili da: Ekipamendu Aurreratua Eskakizun Handiko Dinamikarako; Ekipamendu Aurreratua Neurketa eta Saiakuntza ez Suntsitzailetarako; eta Ekipamenduak Fabrikazio Prozesu Alternatiboetarako.

Zentroan 101 langilek egiten dute lan, 17 doktore daude eta beste 10 pertsona doktore izateko bidean daude. 2010ean 9 lan argitaratu ziren SCI aldizkarietan eta PCT patente bat zabaltzea lortu zuen.

Sortu zenetik, Ideko-IK4k konfiantzazko loturak sortzearen aldeko apustua egin du I+G-ren emaitzak beren jardueretara eramango dituztela ziurtatzen zuten enpresa bezeroekin. Horren harira, Makina Erremintaren eta Mekanizazioaren esparruan erreferenteak diren 3 enprekin egin dituen I+G alorreko lankidetzak-hitzarmenak azpimarratu behar dira, eta baita Trenaren sektoreko Fabrikazio Teknologietara bideratuta dauden enprekin duen beste hitzarmen bat ere.

Nazioartean, Zentroak Europako 9 proiektu aktibo garatu ditu; gainera, liderra da horietako 3 proiektutan, eta beste 4 proiektu ere onartu ditu (horietako 2 Zentroaren buruzagitzapean). Espainian eta Euskal Autonomia Erkidegoan, berriz, Ideko-IK4k 2 proiektu estrategiko berezitan parte hartu du 2010ean (ALEXANDRIA proiektuaren onarpena azpimarratu behar da, Ideko-IK4k koordinatua eta 28 bazkide dituen). Horrez gain, I+G alorreko Plan Nazionaleko proiektu 1ean, ETORTEK programako 5 proiektutan eta ETORGAI programako 6 proiektutan ere parte hartu du (2010ean onartutako 4 proiektu berri).


- **Lortek-IK4** lotura-teknologietan diharduen teknologia-zentroa da. Duela bederatzi urte sortu zenetik, Lortek-IK4k etengabe garatzen jarraitu du teknologia horietan abangoardian egoteko. 2010eko abenduaz geroztik, ik4 aliantzako kide da beste 7 zentrorerkin batera, eta aurrerapauso handia egin du espezializazio-sinergieiei eta partzuergo eta proiektu handietan parte hartzeko gaitasunari dagokionez.

Lortek-IK4 eraikin berri bat eraikitzen hasi zen 2010ean, 2011. urtean amaituko dena. Gero, bertan gauzatuko du bere jarduera osoa, gaur egun Goierriko Berrikuntza Gune desberdinetan zehar garatzen duena.

Lortek-IK4k hainbat sektoretara xedaturiko jarduerak garatzen ditu, hala nola, aeronautikara, garraio, automobilgintza, ekipamendu-ondasunak, erremintak, eraikuntza eta osasuna.

2010. urtean, hainbat proiektu garatu ditu, hala nola, IBE-RM proiektua, fabrikazio gehigarriko teknologia berriei buruzkoa, eta Integrauto, automobilgintza-osagaietan prozesu eta funtzio berriak gaineratzeari buruzkoa. Horiez gain, Europako proiektu batean parte hartu du aeronautikaren esparruan, eta gainera, 18 lan argitaratu ditu, Osakidetzarekin lankidetzak-esparru bat abiarazi du (MONDRAGON Health-en laguntzarekin) Lortek-IK4k esparru horretan dituen espezializazio-ildoetako aplikazio berriak identifikatu ahal izateko, eta Goieki eskualdeko garapen-agentziarekin lan egiten jarraitu du Goierriko





enpresek teknologiaren eta berrikuntzaren arloan dituzten gaitasunak bultzatzeko.

Enpresetako I+G unitateak

- **Aotek** Automatizazioan eta Optikan diharduen enpresa da, eta haren xedea Fagor Automazionek garatu eta fabrikatutako produktuetan integratutako teknologietan bikaintasun-maila lortzea da: zenbakizko kontroletan, erreguladoreetan eta posizioa hartzeko sistemetan.

2010ean, Fagor AOTEK kooperatibak hainbat ikerketa-proiektutan parte hartu du beste enpresa batzuekin batera, honako hauetan, adibidez: FP7 programari dagokion Chameleon proiektua, gai adimenduak erabiliz balio anitzeko makina-erremintak lortzeko xedea duen proiektu europarra; Impeler, makina eta erreminta handien funtzioak areagotzeko CDTI proiektu integratua; Fore, Innpacto programaren barruan sartzen da eta substratu metalikoen gainean patroi sareak grabatu eta irakurtzea du helburu; eta Manufacturing 0.0 eta Profuture proiektuak, Eortek programaren barruan eta CIC Margunerekin elkarlanean, batetik, mekanizazio-prozesu berriak ikertzeko, zehatzagoak, azkarragoak eta energiaren aldetik eraginkorragoak, eta bestetik, ezohikoak, eramangarriak, zehatzak eta mekanizatu beharreko piezaren geometriari erraz egokitzen diren makina eta erreminten garapena.

- **Edertek.** Ekitaldi honetan “Range Extender” proiektuaren garapenean lan egin du batik batik, Lotus Engineering enpresarekin batera.

Alicor proiektua ere aipatu behar da, Brake Corner modularen osagai guztiak arintzeko xedea duena. Powertrain-ean karter zatikatua gehiago erabiltzeko helburua zuen proiektua ere amaitu da.

Nazioarteko foroetako dagokionez, Egipton egin den “Science and Processing of Cast Iron” Nazioarteko IX. Sinposioan modu aktiboan parte hartu du Edertekek, bertan “Improvement of the Metallurgical Quality of Ductile Iron by Conditioning” txostena aurkeztuz.

- **ETIC** (Embedded Technologies Innovation Center) zentroak Microsoften teknologia txertatuetan aditua den I+G zentro gisa sendotzeko prozesuan jarraitzen du. 2010ean Europako proiektuetan (Artemis eta ITEA2) nahiz Espainia eta Euskal Autonomia Erkidegoko proiektuetan parte hartzen jarraitu du. Gainera, 2010ean lan gehiago egin du kontratupeko proiektuak dituzten enprekin. Microsoftekin duen harremana indartu baino ez da egin Madrilen (Espainia) eta Redmond-en (AEB), eta baita Microsoftek mundu osoan zehar dituen gainerrako berrikuntza-zentroetan ere.
- **Fagor Hometek**ek, zeharkako eta nazioarteko berrikuntza-sistema sarean jarri ondoren, Fagor Group-ek dituen berrikuntza-proiektuen mapa oso bat egin du (gaur egun 80 proiektu). 2010eko azaroan Fagor Hometek inauguratu zela eta, zentroko teknologien eta produktuen esparruetan gauzatzen ari diren berrikuntza-proiektu nagusiak erakutsi ziren.

Garbiketaren arloan, energia-eraginkortasunean lan handia egin du, energia % 60 aurreztuz. Detergentea automatikoki dosifikatzeko sistemak ere garatu dira, karga kantitatearen eta haren zikintasun-mailaren arabera. Era berean, CENIT laguntza-programaren testuinguruan, arropa garbitzeko alderdi aurreratuak aztertzen dituen proiektu batean murgilduta dago.

Egoketa arloari dagokionez, etxeko sukaldaritzan bikaintasuna lortzeko ari dira lanean Fagor Hometek. Gainazal osoko indukzio-plaka garatu du, eta baita UOVO izeneko mahai gaineko mikrouhin-labe bat ere.

Hotzaren arloan, hutseko ontzien inguruan eta kontserbazio-tenperaturen erregularizazio zehatzean dihardu. Hozkailuaren barruan hutsean ontziratzeko makina bat (Vac Packer) txertatzeko proiektuan ere aurrerapauso handiak eman ditu; konfigurazio malguetan, argi-pultsuen aplikazioan, eta beste alderdi berritzaile, teknologiko eta diseinuarekin zerikusia dutenetan ari dira lanean.

Elektronikaren eta Komunikazioen arloan, etxean dauden pertsonen laguntza- eta euskarri-zerbitzuak eskain-

tzeko plataforma teknologikoa definitu eta garatu dute. Horretarako, bi pilotu jarri dira, bat osasun-parametroak monitorizatzeko eta, bestea, dietei eta ariketa fisikoari buruzko aholkuak emateko.

Gainera, hainbat hobekuntza egin dira termodinamikaren, mekanikaren, akustikaren, nutrizioaren eta antropologiaren arloetan, betiere produktuen katalogoa hobetzeko asmotan.

Berrikuntza-jarduera horien eraginez, 55 asmakuntza-patente egin ditu 2010. urtean.

- **ISEA** Enpresa Zerbitzuetan espezializatuta dagoen Berrikuntza eta Ekintzaitza Zentroa da, eta Korporazioko Ingeniaritza eta Zerbitzuetako Dibisioak sustatzen du. Haren xede sozialarekin bat eginez, ISEAk Business Acceleration Center - BAC bat sustatu du, hau da, Zerbitzu Aurreratuaren sektoreko enpresa-ekimen berriak merkaturatzeko prozesuak dinamizatzen dituen egitura espezializatuta bat.

BAC hori MONDRAGONen Kudeaketa Eredu Korporatiboaren "Praktika On" gisa aitortu zuten 2010ean. Gero, MONDRAGON Korporazioak ISEA aukeratu du bere Business Acceleration Center delakoaren euskarri-egitura gisa, enpresen ekimenak merkaturatzeko prozesuak dinamizatze xedea duen egitura espezializatua, elkarrekiko lan-kidetzaren bitartez sortzen diren negozio berriak sustatuz.

- **Koniker** irabazi-asmorik gabeko teknologia-zentro bat da. Erabilgarritasun publikoaren aitortpena du, eta konformazio eta mihiztaturako prozesuekin lotutako teknologia berriak ikertzen eta garatzen espezializatuta dago.

Koniker hiru ziurtagiriak lortu dituen Euskal Herriko lehen ikerketa-zentroa izan da: UNE-EN ISO 9001: Kalitate-sistema; UNE 166.002: I+G+b-ren kudeaketa; eta UNE 166.006: Zaintza Teknologikoa.

- Honako hauek izan dira 2010ean garatu dituen ikerketa-ildo garrantzitsuenak:



- Energia metatzeko sistemak eragintza zuzeneko serboprentsetarako.
- Artekatzeko makinaren arkitektura berriak sektore elektrikorako.
- Desugerketa ekologikoaren instalazio berria txapazko prozesatze-lerrorako.
- Moteltze-sistema adimendunak oso gogorrek diren materialak ebakitzeko.
- Lautzeko makinak kalibratzeko ekipamendu berria.
- Boro-altzairuak berotan konformatzea.
- Lodiera handiko materialak konformatzea.
- Xafla fineko panel fotovoltaikoak fabrikatzeko sistematik.

Horrez gain, 2010ean web teknologia sozial eta semantikoak garatu ditu horiek elkarlaneko berrikuntzaren euskarri gisa erabiltzeko eta gero enpresa bazkideen artean aplikatzeko.

- **Maier Technology Centre (MTC)** piezen multzo termoplastikoen ikerketan, garapenean eta dekorazioan espezializatutako zentroa da automozioaren eta etxetresna elektrikoaren sektoreetan. Ingeniaritza konkurrentearen arloan dihardu, eta harreman estua du bere bezeroekin.

2010ean, zentroaren jarduerak gora egin du 2009. urtearekin alderatuta, hura ere lan handiko urtea izan arren; izan ere, automobil-fabrikatzaile guztien ibilgailuei erreferentzia egiten dieten proiektuak erdietsi dituzte, eta Audiren gisako premium bezero berri bat izan dute.

Era berean, lankidetzaren hitzarmenak garatzen jarraitu dute PSA eta Renaultekin, eta hala, metalezko estalduren eta estaldura margotuen gaineko dekorazioaren ereduak haustera datozen teknologiak bereganatu dituzte.

Zentroa handitu eta berregituratzeko proiektua amaitu dela ere aipatu behar da. Hark 1.800 m² baino gehiago ditu laborategi berriak eta industriaurreko ikerketaguneak kokatzeko. 2011. urte hasieran inauguratuko da eta, zalantzarik gabe, aurrerapauso handia izango da zentroarentzat.

- **Orona eic.** 2010ean egindako hausnarketa estrategikoak indartu egin du Oroina eic-k (Elevator Innovation Center) hurrengo 4 urteetarako egindako apustua, eta datozen lau urteetan ikerketan egingo den ahalegina % 57 hazteak lagundu egingo du hori lortzen. Hitzarmenak itxi dira Oroina IDE0 berria lanean hastea ahalbidetu duten beste erakundeekin, eta hori ere azpimarratu egin behar da. Enpresaren, unibertsitatearen eta Teknologia Zentroen arteko lankidetzaren berri horrek Teknologia Zentro berri baten sorrera eragin du energia elektrikoa metatzeko aplikazio aurreratuak ikertu ahal izateko. G3A izena duen zentro

MONDRAGONen teknologia-zentroak eta I+G Unitateak 2010ean

Izena	Aurrekontua Mil. €	Pertsonak
Aotek	2,5	31
C. S. Centro Stirling	0,6	8
Edertek	4,1	32
ETIC	0,6	10
Hometek	3,5	39
Ideko	7,6	101
Ikerlan	20,2	266
Isea	1,1	11
Koniker	1,9	27
Lortek	3,2	42
MIK	2	25
MTC	7	105
Orona EIC	2,5	53
UPTC	2,3	38
	59,1	788

horrek teknologia berri horien inguruan lan egiteko aukera emango die Oroina eic, Ikerlan eta proiektuan parte hartuko duten gainerako enpresetako ikerlariari, azpiegitura berrienak dituen gune partekatu bat baita.

Energia metatzeko sistemari buruzko ikerketa-ildo horrez gain, beste batzuk ere aipatu behar dira, hala nola, tribologia, bibroakustika, makina eta bihurtgailuen diseinua, sistema elektroniko adimendun eta seguruak, eta mantenuen bikaintasuna lortzera xedaturik dauden M2M sistemak.

- **CS Centro Stirling.** CS Centro Stirling S. Coop. 2009an sortu zen eta gaur egun sendotze-fasean dago. Bi dira haren helburu nagusiak: batetik, zubi zientifiko eta teknologiko bat izatea, bere enpresen produktuak hobetzeko (Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sarearen barnean dagoen enpresetako I+G+b unitate batean); eta, bestetik, etxean energia iraunkorren inguruko produktu, teknologia eta enpresak garatzea.

Langileen artean 2 doktore eta doktore-tesia egiten ari diren 3 pertsona daude, eta beraz, profesionalen bikaintasunaren aldeko apustua begien bistakoa da. Bestalde, Zeelanda Berriko, Estatu Batuetako, Errusiako edo Alemaniako enpresekin dituen lankidetzak-hitzarmenek ere argi eta garbi erakusten dute harremanetan jartzeko eta analisirako gaitasun handia duela, eta baita gure industria-sarean lehen mailako teknologiak txertatzeko gaitasuna duela ere.

Ezaguera berri horiek garatzeko, Zentroan ez dauden gaitasunak behar izaten dira askotan, eta horregatik oso komenigarria da beste erakunde batzuekin elkarlanean aritzea. Ildo horretatik jarraituz, Korporazioko erakunde batzuekin gauzatutako jarduerak azpimarratu daitezke, Ikerlan IK-4 edo Mondragon Unibertsitatearekin, adibidez.

- **ULMA PTC Packaging Technological Center**-ek lehendik abiarazitako zenbait urtetarako proiektuak garatzen jarraitu du 2010ean (CENTIT, ETORGAI, espezializazio eta kaptazio Teknologikorako). Prozesuen automatizazio-prozesuetan teknologia propioa garatzearen aldeko proiektuari eman zaio jarraipena, diseinu propioko robot bat eginez. Era berean, nazioarteko proiektuak garatu dira Japonia eta Italiako enpresekin batera, eta soluzio berriak garatu dira *Flow Pack* gisako ontziratze-makinen eta Termoformatzaileen garapenean. Bezeroentzako ontziratze-prozesu osoen soluzio automatizatuaren diseinuan egindako lana ere azpimarratu behar da. Automatizazioaren esparruan, honako gai hauek landu dira: prozesuei aplikatutako ikuspen artifiziala, makinako motion control-ean egindako aurrerapenak, eta horiek sistema txertatuetan integratzea. Azkenik, esan behar da diseinuko teknologia higienizagarriak erabili





direla hainbat produktu-linea desberdinetan, horrela, elikaduraren industriari soluzio egoki eta aurreratuak eskaini ahal izateko.

- **MIK - Mondragon Innovation & Knowledge** gizarte- eta antolamendu-berrikuntzan aditua den I+G+b kudeaketa-zentroa da. 2001ean sortu zen enpresen lehiakortasuna eta garapena sustatzeko, eta haren jarduketaren eremuak I+G+b-ri dagozkion lau ildo hartzen ditu: Enpresa Irekia, Ekintzailtza eta Negozio Berriak, Nazioartera zabaltzea, Ekonomia Soziala eta Pertsonen Parte-hartzea.

2010. urtean, Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak eskatuta, "ETORTEK / Openbasque: Hacia un Modelo de Innovación Abierta basado en la Co-creación" proiektu estrategikoaren buru izan zen MIK.

MIKek Oñatin eta Irunen ditu bere egoitzak, eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko ki-dea da.

Garaia Berrikuntza Gunea

Berrikuntzarako guneari dagokienez, honako hauek izan dira jarduera nagusiak:

- Saiolan Enpresa eta Berrikuntza Zentroa instalazio berri eta moderno batzuetara eraman dute, eta gaur egun 35 pertsona inguruk egiten dute lan.
- Bestalde, eta Euskadiko Etxetresna Elektrikoen Klusterrak (ACEDE) sustatuta, Living Lab bat egiten hasi dira (erabiltzailearengan eta berrikuntza irekietan oinarritutako ikerketa-kontzeptu bat, diziplina anitzeko taldeen parte hartzearekin). Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak finantzaturako ekipamendu bat da eta 2011ko udan ikusiko du argia. 9 milioi euro inguruko inbertsioa izango du.
- Azkenik, Berrikuntza Guneak eskaintzen dituen zerbitzuen osagarri gisa, jatetxe-, kafetegi- eta cate-

ring-zerbitzu bat ireki dute. Hura sostengu-puntu gisa erabiliko dute GARAIaren inguruko enpresek antolatzen dituzten jardueretarako. 7.700 pertsonak hartu dute parte ekitaldi horietan, Garaia Enpresa Digitalaren nodoa garrantzitsua izanik. Jarduera horiek guztiak Eusko Jaurlaritzak sustatutako informazio-gizartearen ekimenaren barne sartzen dira.

Mondragon Unibertsitatea

2009-10 ikasturtean, Mondragon Unibertsitateak Europako Goi Mailako Hezkuntzara egokituta eskaini ditu bere titulazio guztiak. Esparru teknikoan, Goi Eskola Politeknikoak Ingeniaritza Graduak eskaini ditu. Enpresagintza Fakultateak Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Gradua eskaini du, eta aurten, "Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza" Gradua eskaini dute lehen aldiz. Bestalde, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak hezkuntzaren arloko 2 Gradu eta Ikusentzunezko Komunikazioa Gradua eskaini ditu.

6 diploma bikoitz ere eskaini ditu ingeniartzaren esparruan, guztiak ingeniartzaren alorrekoak eta unibertsitate frantsesekin elkarlanean garatutakoak.

Graduondoko eskaintzari dagokionez, 2009-10 ikasturtean 4 Master Ofizial berri eman zaie sarbidea eta beste hainbat titulu berri diseinatu dira 2010-11 ikasturtean abian jartzeko asmoz.

Bestalde, profesionaleri gure unibertsitateak graduondan duen esperientzia gerturatu nahian, elkarlanean dihardu Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Merkataritza Ganbarekin eta Innobasque erakundearekin. Guztira, gure graduondoko titulu propio nahiz ofizialak 20 dira, eta horiei etengabeko prestakuntza-ikastaroen eskaintza zabala gehituz gero, 20.000 prestakuntza-ordu baino gehiago eskaini dira guztira.

"MU plus" proiektua ere aipatu behar da, joan den ikasturtean landutako eta abian jarritako ekimen


berria. Bertan, "lanbide-ikaskuntzarako espazio" bat diseinatu da, online modalitatean ere erabil daitekeena. Espazio hori lanean dabilen langileari zuzendua dago eta profesionaleri Mondragon Unibertsitatearen prestakuntza-eskaintza guztia eskaintzen zaie, profesionalen beharretara egokituz, bai metodologiari, bai formatuari bai eta ordutegiari dagokionez ere.

Matrikulei dagokionez, 2009-10 ikasturtean 3.438 ikasle matrikulatu ziren Mondragon Unibertsitatean: 3.004 gradu-tituluetan, eta 417 graduondoko eta hirugarren zikloko ikasketetan. Horietatik 120 doktoretza-ikasketak egiten ari dira Mondragon Unibertsitatean.

Nazioarteko eremuan ere, atzerrira joaten diren ikasle eta irakasleen kopuruak gora egiten jarraitu du. 2009-10 ikasturtean 228 izan ziren atzerriko unibertsitateetara joan ziren ikasleak, eta Mondragon Unibertsitateara etortzen diren atzerritarren kopurua oraindik txikia izan arren, hark ere gora egin du. Bestalde, 430 ikaslek enpresetan egin zuten karrera-amaierako proiektua eta 637k, ordea, ikasten jarraitu zuten lanaldi erdiko lan bat egiten zuten bitartean.

Ikerketari dagokionez, Mondragon Unibertsitateak elkarlaneko ikerketa-eredu bat sustatzen du, oinarriko ikerketetatik hasi eta funtsezko hiru eragileren lankidetzarekin gauzatu den berrikuntzaraino doana: Unibertsitateak, Teknologia Zentroak eta Enpresak. Filosofia horrekin, unibertsitateak bere ikerketa-jarduerak sustatzen jarraitu du bere 10 ikerketa-ildoetan eta irakasleek I+G+i alorrari eskainitako batz besteko dedikazioa % 34koa izan da.

Unibertsitateak I+G+b proiektu askotan hartu du parte: Korporazioaren Zientzia eta Teknologia Planaren proiektuetan, Eusko Jaurlaritzaren programetan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren programetan, eta baita Europako eta Estatuko hainbat deialditan ere, non Izaera Berezi eta Estrategikoko 3 proiektu zuzentzen dituen. Ikerketa-jarduera horrek bultzada handia eman dio hirugarren zikloari, 18 doktore-tesi berri burutu baitira.





2009-10 ikasturtean proiektu estrategiko askotan egin du lan Mondragon Unibertsitateak: Basque Culinary Center, Enpresagintza Fakultateko Campus berria, Elektronika eta Sistema Txertatuen Ikerketa eta Berrikuntza Teknologikorako Zentroa, MU PLUS, MUren ON LINE proiektua, MEI-Mondragon Educación Internacional, eta Nazioarteko Bikaintasun Campusa.

Azkenik, eta ekintzailtzari dagokionez, "Mondragon Ekiten" plan integralaren barruan, 2009-10 ikasturtean ekintzailtzaren 4. topaketa ospatu zen, eta bertan, Mondragon Unibertsitateko 130 ikaslek hartu zuten parte. Era berean, Ideia Berrien lehiaketan hiru dira proiektuen garapen-eremuak: "enpresa-ideia berriak", "ingurumenaren garapena" eta "gazteria, aisialdia eta kirola".

Beste prestakuntza-zentro batzuk

Politeknika Ikastegia Txorierrri ikastetxeak 402 ikasle izan zituen 2009-10 ikasturtean irakaskuntza arautuaren barruan, eta lanerako eta etengabeko prestakuntzarako 42 ikastaro eskaini zituen (2.557 ordu); azken horietara 404 ikasle joan ziren, lanean ari ziren pertsonak gehienak. Horren harira, gelan IKTak aplikatzeari buruzko 6 ikastaro antolatu eta garatu dira, eta horietan 30 irakaskuntza-zentro baino gehiagoko 108 irakaslek hartu dute parte.

Nazioarteko eremuan, 15 ikasle Europako enpresetan egin zituzten praktikak (Herbehereak, Alemania, Irlanda, Italia eta Lituania). Halaber, Merkataritza eta Marketin zikloko bi irakasle sei eguneko egonaldia egin zuten Holandan, eta bertan, espezialitate hori eskaintzen duten beste zentro batzuetako esperientzia pedagogikoak ezagutzeko aukera izan zuten.

Horrez gain, zentroak parte hartzen duen berrikuntza-transferentziako proiektuaren lehen fasea arrakasta handiz amaitu zen: CATEL (Cultural Awareness in vocational Training through E-Learning) eta IOA2 (International Operation Agent II), Leonardo Da Vinci Europako Programak eta Eusko Jaurlaritzak (120.097 €) finantzaturiko proiektuak, Europako beste lau zentrotan elkarlanean (Alemania, Turkia, Estonia, Belgika, Holanda, Finlandia eta Lituania).

Kultura ekintzaileari dagokionez, zentroak inkubazio-fasean mantendu du (lokalak eta ekipamenduak uzten dizkio) Ardolan enpresa. Horrez gain, autoenplegurako beste 4 proiektutan parte hartu du, eta horretarako Eusko Jaurlaritzaren eta Worklan Erakundearen (haren sustatzaileetako bat) laguntza jaso du, beste erakunde batzuen artean.

Genero-berdintasunaren aldeko Parekatuz sarearen kide den aldetik (Bizkaiko Foru Aldundiak sustatua), “Ezagutu Aukeratzeko” proiektua sortu da Txorierriko Behargintzaren laguntzarekin. Programa horren bitartez, ikasleek generoaren ikuspegia kontuan izanik egin dituzakete praktikak enpresetan, horretarako Emakumearen Euskal Erakundearen (Emakunde) laguntza ekonomikoa eta haren aitorpena jasoz.

Lea Artibai Ikastetxeak Eusko Jaurlaritzaren baime-na jaso du irakaskuntza arautuan, 2010eko irailetik aurrera, “Energia-eraginkortasuna eta eguzki-energia termikoa” izeneko prestakuntza-ziklo berri bati hasiera emateko. Zikloak oso harrera ona izan du.

Gainera “Produkzioaren programazioa fabrikazio mekanikoan” prestakuntza-zikloa LOGSEtik LOEra egokitu da.

Prestakuntza-zikloetako ikasleen % 87ari beren ikaske-tekin bat datorren lan bat aurkitu zaio.

Halaber, TKNIKAren 5 proiektutan hartu du parte, eta oso emaitza onak izan dituzte.

